

IRUZURRA: Falciani zerrendako izenak, lege hauste izugarrien icebergaren tontorra > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Gatazkaren saminak eta etekinak

RAMON SOLA > 11

2015ko otsailaren 14a | VIII. urtea • 404. zbk.
0,50 euro

GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



ISTANBULEKO PROTOKOLOAK,
NAZIOARTEKO ESTANDAR ZIENTIFIKOETAN
OINARRITUTA, TESTIGANTZAK TORTURAREN
FROGATZAT ONARTZEN DITU. > 12 Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

TORTURATUAREN MINA, NAHIKOA FROGA

**Falciani zerrenda, iruzurraren
icebergaren tontorra** 04

**Homosexualitatearen inguruko
eztabaida pil-pilean Irlandan** 08

**Istanbuleko Protokoloa, lekukotzak
tortura froga bihurtzeko bidea** 12

**Minbizia duten lagunek kirola
egiteko pistak bildu dituzte** 18

**e.lkarrizketa: Uxune Martinez,
Ingumako kudeatzailea** 22

**Hartzituak, zentzudun kontserbak
prestatzeko errezeta** 26

**Infraganti: Iker Ibarluzea,
meteorologoa** 28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** Nafar herritarrak, etxetiar «Deep Blue» politikoak
 10 **Ander Gortazar Balerdi:** Frei Otto ikusten dut
 11 **Ramon Sola:** Gatazkaren saminak eta etekinak
 17 **Ainara Azpiazu «Axi»**
 20 **Arantxa Urbe:** PISaren gomendioen gainetik LOMCEk egingo duena
 21 **Iker Barandiaran:** Igogailuek aguantatu behar dutena
 27 **Koldo Sagasti:** Eskorbuto hauteskundeetara
 27 **Amaia Agirre:** Mozorroak
 31 **Olatz Perez de Viñaspre Garralda:** Teklatu adimentsuak?



{ datorrena } Iñaki Soto

Nafar herritarrak, etxetiar «Deep Blue» politikoak

Podemos dela eta ez dela, Nafarroan, eta bereziki aldaketa politikoa desio duten nafarren artean, foru hauteskundeetarako atzo amaitu zen prozesu parte-hartzailean izena ematearen egokitasunaz asko hitz egin da azkenaldian. Labur esanda, prozesu parte-hartzailea irekia zenez, benetako hauteskundeetan Ahal Dugu-ri boza emateko inongo asmorik ez dutenek ere hautagai horren hautaketan eragiteko aukera zuten. Nafarroa estatu auzia den heinean, Estatuaren estoldetan eta erregimenaren zirkuluetan hizketaldi hau errepikatu egingo zela pentsatzeak logikoa dirudi. Estatu arrazoi horren izenean jendea torturatzeko, hiltzeko edo sikiera beren borondatea erosteko gai izan badira, dozena pare bat mugikor erosi eta nahiago duten hautagaiaren alde egiteko prest egongo zirela argi dago. Egin duten edo ez, hori beste kontu bat da. Azken batean, erabaki hau hartzeko egin behar diren kalkuluak oso konplexuak baitira.

Nolanahi ere, eztabaida hori egon da. Adibidez, gure profeta birtuala, Osaba Sabine (aka @aranagoiri) honela mintzo zen: «*Bueno, ya he registrado un alter ego en Podemos Navarra y he votado a la candidata que menos me disgusta. Si hay agostazo no es mi culpa*».

Eztabaida honek guztiok barruan –edo azalean– darabagun makiavelo txikiak piztu ditu. Podemos fenomeno orokorraren ezaugarrietako bat natura kalkulatzailer hori sustatzea izan denez, besteengan ere eragin horixe du. Etxean ibiltzeko «Deep Blue» txikiak bihurtzen gara, Kasparovi irabazi zion kalkul-makina-erraldoi haren antzekoak. Eztabaida moralez harago, Ahal Dugukoek argi utzi baitute beraientzat ez dagoela kontraesanik beraien kide izan ez eta prozesu honetan bozkatzeari –betiere bozkatzaren dizona gogokoen ditzuten hautagaia bada eta ez gutxien beldurtzen zaituen arerioa, noski–, kaleko eztabaida parte-hartzeak izan dezakeen ondorio eta emaitza politikoei buruzkoa izan da, batez ere. Hori, eta politikoki identifikatuta dauden pertsonak inskribatzearen egokitasunaz.

Adibidez, Joan Bosch hautagai ofizialista ez da osteko paktuez batere argi aritu, eta Madrilen alderdiak dituen interes orokorren menpe jarri ditu erabaki horiek, alegia, Moncloara heltzeko laguntzen duen edo ez duen lagun-

tzen jarriko du balizko edozein akordioaren aurretik. Demokratikoki, baina menpe. Beste hautagaiak, Laura Perezek, ordea, argi utzi du berak erregimena sostengatu duten alderdiak kanporatzeko balioko duen indar metaketak babestuko dituela, EH Bildurekin lor daitezkeenak barne, jakina. Hartara, Osabaren botoa argi dago.

Kontrako argudioak entzun ditut, ordea. Kalkuluetara bueltatuz, UPN-PP-PSN hiruhortzari hautagaietatik zeinek kendu diezaiokeen gehiago aztertu dute askok, aldaketa gauzatu ahal izateko lehendabiziko baldintza, paktuen aurretik, emaitzak baitira. Tabernako demoskopio honen arabera, Boschek emaitza hobeak lor ditzake esparru geografiko eta ideologiko arrotzetan –«bera bezain arrotzetan», esan du baten batek–.

Bide batez, askok uste dute benetako bataila paktuak bozkatzeko prozesu parte-hartzailean egongo dela. Izan ere, hauteskundearen osteko prozesu hori erreferendum

Estatu arrazoiaren izenean jendeari edozer egiteko prest egon badira, dozena bat mugikor erosi eta nahiago duten hautagaiaren alde egiteko prest egongo zirela pentsatzeak logikoa dirudi

birtual bat izan daiteke, honek dituen arrisku eta aukera guztiekin. Orduan ez soilik Sabino Arana, Barcina bera ere bozkatzera joan daiteke. Esan bezala, lehendabizi kanpaina, hauteskunde eguna eta emaitzak datoz, oraingoz makiaveloentzat epemuga atzo amaitu baitzen.

«Deep Blue» aipatu dut eta honetaz ari ginela Mikel Zubimendi lagunak anekdota bat kontatu dit. Makina horretan historia osoko jokalaririk onenen mugimendu guztiak sartu zituzten, orduko txapeldunari irabazteko. Ondorioz, Kasparovi aise irabazi zion «Deep Blue»-k lehendabiziko partidari. Bigarrenetan, ordea, txapeldun errusiarrak ume baten moduan jokatu zuen eta makinarekin kalkulatuak hautsi zituen. Akaso, umekieririk gabe, baina gehiegizko sofistikazioak albo batera utzita, urteetan hezitako sen politikoari jarraituz jokatu beharko genuke. •

IRUZURRAREN AURPEGIA

Falciani zerrendako izenak lege hauste izugarrien icebergaren tontorra baino ez dira

 JENDARTEA / Pablo Ruiz de Aretxabaleta

Herve Falcianik pilatutako HSBC bankuko bezeroen inguruko datuetan oinarrituta asteen argitaratu diren izen-abizenak iruzur sistema itzel baten zati txiki bat baino ez dira. Falciani zerrendak aurpegiak jarri dizkio iruzur horri. 106.00 izen dituen arren, zerrendak banku bakar bateko eta bi urteko iruzurra besterik ez du jasotzen. Icebergaren tontorra.

Zerga iruzurraren nazioarteko sistema, HSBC banku britainiarrak suspertua eta orain argitara atera dena, iceberg erraldoi baten tontorra baino ez da. Herve Falciani HSBC bankuko filial suitzarreko langile ohiak ezagutarazi dituen ezkutuko kontuei buruzko informazioek milioika euroko ondareak ezkutatzeko tresnak agerian jarri ditu. Baina dirutza horiek, Estatuen ogasun publikoei ihes egiteko bideak erakustez gain, iruzurra egiten dutenen izen-abizenak ere badituzte

atzetik. Enpresari eta bankari handiek, artistek, kirolariek, erregeek, aristokratek edo politikoei osatzen dute Falciani zerrenda. Eta horiekin batera, droga, diamante edota arma trafikatzaleek. Bitxia, benetan, zerrenda horretako herritarren gehiengoak aitortutako lanbidea zein den ikustea: «etxeko-andrea»!

Falcianik 2007an HSBC bankuko datuak hartu eta agintari frantsesen esku utzi zituen, baina aste honetan azaleratu dira artxibo horietan agertzen diren edukiak. Izan ere, “Le Monde” egunkariak zuzendutako komu-

HSBC bankuko urte pare bateko datuek agerian utzi dute iruzurraren aurpegia.
Andrew COWIE | AFP

nikabide partzuergo batek HSBC bankuaren Genevako egoitzan kontu ezkutatu zituzten 106.000 pertsonen izen-abizenak identifikatu ditu. 200 herrialde ezberdinetako biztanleak daude tartean. Kontu horietatik, 2006ko azaroaren 9tik 2007ko martxoaren 31ra arte, 180.600 milioi euro inguru pasatu ziren. Eta kontuan hartu behar da komunikabide partzuergoak Falcianik eskuratu zituen fitxategien kopuru txiki bat baino ez duela kaleratu. Gainera, banku bakar batean eta epe mugatu batean egindako operazioak bakarrik agertzen dira. Zer ez ote da egongo ezkutuan Suitzako gainontzeko bankuetan?

Falcianik berak adierazi du litekeena dela banku frantsesak ere iruzur sistema horren parte izatea. «Ezinezkoa da banku frantses handiak auziarekin inolako zerikusirik ez izatea», esan du. Kontuak kontu, jada “SuisseLeaks” izena jaso duen ikerketak harritzeko moduko zerrenda argitaratu du. Edo agian ez da horren harrigarria...

ARISTOKRATAK ETA POLITIKOAK

Zerrendan, besteak beste, bi errege agertzen dira. Marokoko Mohamed VI.ak 9,1 milioi dolar izan zituen kontu zifratu batean; Jordaniako Abdallah II.ak, bere aldetik, 41,8 milioi. Beste satrapa batzuk ere agertzen dira zerrendan: Bandar bin Sultan printze saudiarra, Salman bin Hamad Al Kalifa Bahraingo printzea, Qaboos Bin Said Omango sultana, Malaysiako Kalsom sultanaren emaztea... Halaber, Hosni Mubarak Egiptoko presidente ohiaren ministro izandako Rachid Mohamed Rachid edota Baxar al-Assad Siriako presidentearen Rami Majluf lehengusu diruduna ere badaude zerrendan.

Latinoamerikako ordezkari politikoak ere agertzen dira zerrendan: Horacio Manuel Cartes Paraguaiko presidente eta enpresa talde handi baten jabea; Venezuelako Alejandro Andrade politikari chavista edota Ekuadorko enpresaburu aberatsena eta oposizioeko kidea den Alvaro



Noboa. Enpresarien zerrenda luzea da, horietako asko politikaren munduarekin zuzenean lotutakoak. Izugarri aberatsak direnenak ere ez dira falta zerrendan. Belhassen Trabelsi enpresaria airelinea eta hotel kateen jabea da. Bide batez, Zine El Abidine Ben Ali Tunisiako diktadorearen koinatua ere bada. AE-Betako Alfred Taubman, Mexikoko Carlos Hank Rhon (PRI alderdiko buruzagia ere izan zena), Edmond J. Safra bankari libanoarra, Kerry Parker milioi-dun australiarra, Aliko Dangote Afrikako enpresaburu aberatsena edota Greziako Lvrentis Lavrentiadis ere aipatu beharrekoak dira.

DINASTIAK

Eta batzuek familian ezkutatu dute aberastasuna Suitzan. Izan ere, hiru dinastien abizenak behintzat agertzen dira “Swiss-Leaks” ikerketak azaleratutako agirietan. Flick familia alemaniarra aspalditik da ezaguna negozioen munduan. Enpresa ugariaren akziodunak dira, besteak beste ikatzaren arloan, altzairugintzan edo automobilgintzan. Hama-

Enpresari eta bankari boteretsuak, artistak, kirolariak, erregeak, aristokratak, politikoak... agertzen dira zerrendan. Eta, beraiekin batera, baita droga eta arma trafikatzailleak ere

Genevako HSBC bankuko egoitzako ezkutuko kontuetatik 180.600 milioi dolar igaro ziren 2006ko azaroaren 9tik 2007ko martxoaren 31ra. Ez ahaztu banku bakar batez ari garela...

lau kontu ezkututan 87 milioi dolar gorde zituzten 2006 eta 2007 artean. Brasilgo familia aberatsenetakoa den Steinbruch dinastiak 464,2 milioi dolar zituen ezkutuan. Eta Estatu espainiarreko Botin bankari dinastia ere 2.000 milioi euro izatera iritsi zen. Emilio eta Jaime Botin anaiak zein gaur egun Santander taldeko presidente den Ana Patricia Botin zerrendan agertzen zirela ezaguna zen aldeztatik ere. Hain zuzen, abizen boteretsu hori zerrendan agertu izanak Estatu espainiarreko agintariak izutu zituen, eta, ondorioz, bi zerga-amnistia ezarri dituzte azken urteotan.

Fernando Alonso gidariaren eta Tina Turner abeslariaren izenak agertu dira, besteak beste, zerrenda luzean. Kazuiro NOGI | AFP - GAUR8

HSBC BANKUAK BEZEROAK OHARTARAZI ZITUEN

HSBCk bere bezeroak ondo zaintzen ditu. Bere dirutza ezkututzen laguntzeaz gain, Falciani zerrendako datuak argitara aterako zirela jakin zuenean bezeroekin harremanetan jarri zen berehala. “Le Monde” egunkariak eta ICJ Ikerketako Kazetarien Nazioarteko Partzuergoak datuak argitaratu baino egun batzuk lehenago, urtarrilaren 29an, abisua bidali zien bezeroei HSBC Private Bankingeko zuzendaria den Andreas von Plantak eta Franco Morra presidentek. «Zure bizitza pribatuan komunikabideek bidegabe sartzearen eragina gutxitzeko zentzuzko neurri guztiak hartzen jarraituko dugu. Barkatu eragozpenak», adierazi zuten mezuan. Hainbat herrialdetan HSBCren aurkako ikerketak iragarri badituzte ere, orain arte irekita dagoen prozesu bakarra Herve Falciani beraren kontrakoa da. «Agiriak lapurtu, eta banku eta merkataritza sekretua urratzea» egozten dio Suitzak. Kartzelatik pasatu bada ere, Parisek eta Madrilek bere estradizioa ukatu dute, iruzurgileen datuak jaso ondoren. Falcianik estatuen laguntza eskatu du bera bezalako salatariarentzat. Bere ustez, «iruzurra erakunde bat da, industria bat. Borondatearen emaitza da, ez zoriarena».





Kirol munduko izen ospetsu ugari ere aurki daitezke zerrendan. Esaterako, Michel Schumacher, Fernando Alonso eta Heikki Kovalainen 1 Formulako pilotuak edo Valentino Rossi motoziklismo gidaria. Alonso garai hartan Suitzan bizi zen, eta, ondorioz, bere izena argitaratzeagatik salaketa jarriko duela iragarri du pilotu asturiarrak. HSBC bankuan 23,9 milioi dolar zituen Rossik ogasunarekin zituen zorrak jada ordaindu dituela adierazi du. Hori bai, orain dela gutxi eta ez zegokion momentuan... Diego Forlan futbolari uruguaitarra eta Marat Safin tenislari errusiarrak ere agertzen dira zerrendan.

Artistak ere ez dira falta. David Bowie musikaria, Christian Slater aktorea, Tina Turner abeslaria, Phil Collins musikaria, Elle McPherson modeloa edo Joan Collins aktorea ezagutarazi dira orain arte. Turner eta Bowieren kasuan, hala ere, Suitzan bizi ziren garai horretan.

Bien bitartean, zerrenda egunetik egunera handituz doa. Izan ere, datuak eskuratu dituen komunikabideen partzuergoa pixkanaka-pixkanaka ari da ize-nak argitaratzen.

ARMA ETA DROGA TRAFIKATZAILEAK

Glamour gutxiagoko pertsonak ere ez dira falta. Abdoul-Karim Dan-Azoumi Badicaren jabea da, Afrika Erdiko Errepublikako

diamante esportatzaile handiena. Iaz Nazio Batuek egindako txosten batek Badica Seleka milizia musulmanen finantzazio iturri nagusia dela salatu zuen. Seleka miliziaren eta Gobernuaren arteko borrokek milaka hildako eragin dituzte jada.

Jose Mestre kataluniarra Ter-cat zamaketa enpresaren burua da, Bartzelonako portuan dagoen handiena. Kokaina trafikoa-gatik 12 urteko kartzela zigorra jaso zuen. HSBC bankuan 8,9 milioi dolar gorde zituen 2006 eta 2007 artean. Arturo del Tiempo Dominikar Errepublikako eraikuntza arloko enpresaburua da, bera ere narkotrafikatzailea Kokaina trafikoa-gatik 7 urteko kartzela zigorra jaso zuen. HSBCn 3 milioi euro zituen epe berean.

Falciani zerrenda “Le Monde” buru duen komunikabide partzuergoa eskaintzen ari dena baino askoz luzeagoa da, baina

«SwissLeaks»eko agirien arabera, HSBCen diru gehien zuen espainola Emilio Botin zen, 2.000 milioi euro inguru, eta paradisu fiskaletako enpresen bidez ezkutatu zituen.

Pedro ARMESTRE | AFP

Artistak ez dira falta zerrendan: David Bowie, Phill Collins eta Tina Turner musikariak, Christian Slater eta Joan Collins aktoreak... Horietako batzuk, hori bai, Suitzan biza dira

Gehienetan kontuak ez daude izen bati lotuta, zenbaki bati baizik. Eta dirua erabat estaltzeko, beste paradisu fiskal batean kokatutako enpresa-pantaila baten izenean egon daiteke

agertzen diren denak ez dira iruzurgileak, Suitzako bankuko bezeroak baizik. Kazetari talde batek datuok ikertu ditu ondatsunak ezkutatzen ari direnak zeintzuk diren argitzeko. Izan ere, Suitzan dirua izatea ez da berez legez kanpoko. Baina bai dagokion zergak ez ordaintzea. Eta, noski, dirua gordetzeko orduan Suitza aukeratzen bada, ez da bakarrik bertako kontuek ematen dituzten etekinengatik, banku-sekretua ziurtatzen dutelako baizik. Modu horretan, lanbideagatik, jabegoagatik edota etekinengatik ordaindu beharreko zergak saihesten dira.

Sekretu maila desberdinak daude. Suitzak zuhertasuna eskaintzen du. Baina ez da nahikoa. Gehienetan kontuak ez daude izen bati lotuta, zenbaki bati baizik. Eta dirua erabat estaltzeko, kontua beste paradisu fiskal batean (Panama, Birjina Uharteak, Barbados...) kokatutako enpresa-pantaila baten izenean egon daiteke. Eta tartean izen-mailegatzaileak jartzen dira. Miatzeko oso zaila den amarauna osatzen da horrela. Falciani zerrendak, hortaz, ezaguna izanagatik inoiz mahai gainean jartzen ez den praktika bat azaleratu du, izen-abizen zehatze-kin. Ezagunak oso.

“The Guardian” egunkariaren arabera, Suitzako bankuak kontuon jabeentzako kutxazain papera betetzen zuen, eta, hala,

egunero Britainia Handitik, Frantziatik, Alemaniatik, Espainiatik, Italiatik, AEBetatik, Belgikatik edo Herbeheretatik iristen ziren kontudunak Suitzan gutxi erabiltzen diren dibisak ateratzeko: librak, dolarrak, euroak... Diru hori bakoitzaren herrialdean gastatzeko edo etxebizitzak erosteko baliatzen zuten. Baina askotan ez zuten haraino joan beharrik ere, bezero espainiar asko Madrilan edo Bartzelonan elkartzen baitziren bankuko ordezkariekin!

Estatu espainoleko kasuan, Falcianiren zerrendan HBSCko 4.000 bezero inguru agertzen dira, guztira 1.769 milioi euro gorde zituztenak Suitzan 2006an eta 2007an. Batzuk Suitzan bertan bizi ziren eta beste batzuk Ogasun espainolari aitortutako finantza tresnak erabiltzen ari ziren. Baina beste askoren kasuan, Suitzako kontua Panama bezalako paradisu fisikaletan kokatutako enpresa-pantailetara dirua helarazteko amarrua besterik ez zen. Izan ere, bezero espainiarrekin lotutako 261 enpresek dute egoitza paradisu fiskal horietan.

BOTIN

Zerrendako izenen artean Alfons Godall Bartzelona futbol taldeko presidenteorde ohia, Ramon Lopez Vilas epailea, Jordi Pujol Ferrusola, Guillermo Luca de Tena –“ABC” egunkariko sortzailearen semea eta egun Vocento taldeko akzioduna–, Fernand Masaveu bankaria edo Prado familia –Manuel Prado y Colon de Carvajal Juan Carlos errege ohia- ren lagunarena– agertzen dira.

Baina guztien gainetik izen bat nabarmentzen da: Botin. SwissLeaks ikerketako agirien arabera, HSBC bankuan diru gehien zuen espainola zen, 2.000 milioi euro inguru. Gerora, paradisu fiskale-tako enpresen bidez ezkutatu zuen. Emilio Botin 2003tik izan zen HSBCren bezeroa North Star Overseas Enterprises Inc izeneko enpresa baten bitartez; bost kontu ezberdinen zituen enpresak eta 2006an eta 2007an 82 milioi dolar zituen guztira. North Star enpresako egoitza Panaman zegoen eta 2011n Botinek itxi egin

Dinastia boteretsuak agertzen dira SwissLeaks ikerketak azaleratutako agirietan. Besteak beste, Flick alemaniarra, Steinbruch brasildarra edota Botin bankari dinastia espainiarra

behar izan zuen Zerga Agentzia auzia ikertzen hastean. Izan ere, agintari frantsesek Herve Falcianik emandako datuak beste herrietakoekin partekatu zituzten.

Estatu espainolera 2010ean iritsi ziren datuok, Elena Salgado (PSOE) Ogasun ministroa zenean. Baina zerrendan hain izen boteretsuak ikusterakoan, izua zabaldu zen Administrazioan. Modu horretan, ikuskapen zorrotzaren bidea aukeratu beharrean, azaleratutako iruzurgileekin kontaktuan jarri zen Administrazioa beren egoera zuzen zezaten.

BI AMNISTIA

Ikuskapen prozesua aukeratu izan balu, Ogasun Publikoaren aurkako delituak salatu beharko zituen Gobernuak. Erregulazio bide horrekin, berriz, epaitegiak alboratu zituen. Horrela, «borondatez» egoera zuzentzeko eskatu zien iruzurgileei, damutu izan balira bezala, benetan delitu bat egiten harrapatu zituenean.

Ondorioz, ordura arte aitortu gabeko 260 milioi euro eskuratu zituen Ogasun espainolak. Gehienak Botin familiak egindako iruzurrari zegozkion. Izan ere, 211 milioi euro ordaindu zituen

Agintari espainiarrak urduri jarri ziren Botin sendiaren izena zerrendan ikustean. Iruzurgileak epaitzearen alde egin beharrean, egoera «borondatez» erregulatzeko eskatu zien

sendiak. Hala ere, Zerga Agentzia ez zegoen ziur ordaindu beharreko kopurua hori zen eta Entzutegi Nazionalera jo zuen. Izan ere, pantaila bezala erabilitako azpiegitura korapilatsuak (trust, fundazio eta mota askotako elkarteek osatutakoa) diruaren bidea jarraitzea zailtzen zuen. Azken batean, Botin sendiak dirua ezkutatze enpresa sare konplexua erabili zuen, gehienak paradisu fiskaletan kokatuak eta izen mailegatzailleen izenean erregistratutakoak. Ikerketak ikerketa, Entzutegi Nazionalaren gainetik ere Botinek gehiago ez ordaintzea lortu zuen. Dirua zenbat eta norena zen zehaztea hain zaila izanik, eta auzipetuaren abizenaren pisuak bultzatuta, epaileak ontzat jo zuen azkenean ordaindutakoa eta kasua itxi egin zuen. Kito.

Ez zen azken amnistia izan. Cristobal Montoro (PP) ministro

Marokoko Mohamed Vlk 9,1 milioi izan zituen kontu zifratu batean. Alboko irudian, Joan Collins aktore famatua, zerrendan agertu dena. AFP

zela, 2012an dirua atzerrian ezkutatzen zutenei bide berdina eskaini zieten berriro. Horrela, %10eko zigorra baino ez zuten ordaindu behar izan ezkutuan izandako dirua zuritzeko –hiru urte zehatzeko epean egindako iruzurrei bakarrik ezarri zitzaaien amnistia–.

Euskal Herriko izenak ere agertzen omen dira Falciani zerrendan. Oraindik ez da bat bera ere ezagutu, baina, Ser irrati katearen arabera, EAeko 150 pertsona inguru agertzen dira; Gipuzkoako 80, Bizkaiko 60 eta Arabako 11.

HSBCk onartu du kasu batzuetan bezeroek banku-sekretuaz baliatu zirela «aitortu gabeko kontuak ezkutatze». Baina barne alaketak egin dituela eta egun bere politika aldatu duela adierazi du. Sinistu egin behar al dugu?

HSBCRI KONTU ESKE

SwissLeaks ikerketak HSBC bankuari kontuak eskatzera behartu ditu gobernuak. AEBetan «dirua zuritzea» epaitzen zen kasu batean akordio bat hitzartu zuten HSBCko ordezkariak, eta bankuak 1.920 milioi dolar ordaindu

zituen epaiketara ez joateko. Baina New Yorkeko fiskalak ohartarazi du hitzarmen horrek ez diola inolako babesik ematen bankuari beste kasuen aurrean. Britainia Handian, 2010ean jaso zituen Zerga eta Muga Zerbitzuak Falcianiren datuak agintari frantsesen eskutik, zerga delituak bakarrik ikertzeko baldintzarekin. Hortaz, ezin izan zituzten dirua zuritze delituak ikertu. Komunaren Ganbarak HSBCren jarduera iker-tuko duela iragarri du, hala ere.

Belgikak «ez du HSBCko bu-ruak atxilotzeko nazioarteko agindurik eskatuko», adierazi du Fiskaltzak, joan den astelehenean kontrakoa esan bazuen ere. Michel Claise epailea HSBCko zuzendaritzarekin «pazientzia gal-tzen» hasia dela adierazi zuen Fiskaltzak. Azaroan Claisek ban-kuari «zerga iruzur larria eta diru zuritzea» egotzi zizkion, diaman-teen negozioarekin lotuta batik bat.

Ikerketak iragarri dituzte El Salvador eta Tunisian ere. Portu-galen agintariek Falciani zerren-dari buruzko zehaztasun gehiago eskatu dituzte, «delituak dauden argitzeko». Inolako dudarik ba al dute oraindik ala?



IRLANDA ETA HOMOSEXUALITATEA

Apaiz eta ministro banak homosexual direla onartu dute sexu berekoen ezkontzari buruzko galdeketaren atarian

Egunkari batean ondoko titularra irakurtzen badugu, “Apaiz batek bere kongregazioaren txalo zaparrada jaso du homosexuala dela onartu ondoren”, segur aski ez dugu pentsatuko halakorik Irlandan gertatu denik. Baina, bai, Dublinko eliza batean gertatu zen urte hasieran. Father Martin Dolan St Nicholas of Myra elizako apaiz bakarra da. Eraikina Francis Streeten dago, Dublingo erdialdean.

“Osasun ministroak publikoki onartu du bere homosexualitatea zuzeneko irratik elkarrizketa batean”. Titular hori ere ez genuke Irlandarekin lotuko, baina bertan gertatu da. 2015. urtea hastearekin batera, Leo Varadkarrek, Fine Gael alderdi eskuindarreko ministroak, bere herritarren aurrean agertu zuen homosexuala dela. Gainera, analista politikoen esanetan, Varadkarrek aukera asko dauzka bere alderdiko lider burua izateko etorkizunean.

Maiatzean, oraindik zehazteko dagoen egun batean, irlandarrak erreferendumera deituta daude, sexu bereko bi pertsonen arteko ezkontza onartzen duten edo ez erabakitzeko. Erreferendum horren bueltan ulertu behar dira Father Martin Dolan apaizaren eta Leo Varadkar ministroaren adierazpenak.

Father Martin Dolan apaizak, bere homosexualitateaz modu irekian hitz egiteaz gain, argi eta garbi esan zuen mezaren erdian ezkontza homosexualen aldeko kanpainan parte hartzeko asmoa duela. Albistea Irlandako komunikabideetan agertu orduko kazetari guztiak Eliza Katolikoaren erantzunaren zain geratu ziren, baina ez zen inolako iritzirik heldu iturri ofizial horretatik. Aldiz, St Nicholas of Myra kongregazioaren baitatik segituan atera ziren beren apaizaren alde; «oso pozik gaude gure apaizarekin, eta ez dugu onartuko gure elizatik atera-

tzea, norbaitek asmo hori agertuko balu», esan zuten tinko bere elizako kideek.

Varadkarrek, bere aldetik, nabarmendu du berak argi eta garbi agertu nahi izan duela bere homosexualitatea inork ez dezan esan zerbait ezkututzen ari denik. Eta gaineratu du maiatzeko erreferendumaz gain, beste helburu eta egiteko batzuk dauzkala mahai gaineen homosexualitateari dagokionez. Homosexualen arteko ezkontzei bidea irekitzeaz gain, pertsona homosexualak odola emateko modua izan dezatela arautu nahi du –gaur egun debekatuta daukate–, eta subrogatutako haurdunaldietara ere zabaldu nahi ditu aitatasun eta amatasun eskubideak.

 **JENDARTEA** / Iñaki Irigoien

Irlanda aldatzen ari da azken urteotan. 1993ra arte homosexualitatea legez kanpkoa zen herrialdean, baina, datorren maiatzean, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzen inguruko erreferenduma egingo da. Jendartean nabarmen zabaldu da aldeko jarrera, eta, orain, legeak arrastaka aldaketara egokitu behar dira.

Irlandan homosexualitatea legez kanpkoa zen 1993. urtera arte. Hartara, aise esan daiteke Irlanda asko aldatu dela azken urteetan. Horren adierazle dira sexu bereko pertsonen ezkontzaren inguruan egindako galdeketak. 2008. urtetik hona, aldekoen jarrera gailendu da; urte askoan

herritarren %60 egon da alde eta egun %70era igo da aldekoen portzentajea. Kontrakoen, berriz, %20aren bueltan dago.

2011. urteaz geroztik, sexu bereko pertsonak elkartze zibilaren atea zabalik daukate, baina ez ezkontza zibilarena, eta hor dago gakoa. LGTB edo lesbiana, gay, transexual eta bisexualen mugimenduaren inguruko 160 taldek salatu dutenez ezkontza zibilak eskubide gehiago eskaintzen ditu, baina hori, oraingoz, bikote heterosexualen esku baino ez dago.

Berez oraindik ez da hasi maiatzean izango den erreferendumaren inguruko kanpaina baina homosexualen arteko ezkontzen aldekoentzat borroka aspaldian hasi zen. Ikustear dago kontrakoak zenbat diren eta noraino altxatzen duten ahotsa, baina, oraingoz, isil samar dabilta eta hori oso adierazgarria da. Horrek ere



2015. urtea hastearekin bat, armairutik atera dira Father Martin Dolan apaiza eta Leo Varadkar ministroa. Beren homosexualitatea publiko egin dute biek eta irlandarren gehiengoak patxada handiarekin txalotu du erakutsi duten ausardia. GAUR8



Irlandan homosexualitatea legez kanpoko zen 1993. urtera arte. Baina 2008. urteaz geroztik egindako galdeketetan jendartearen gehiengoa sexu berekoen ezkontzaren alde agertu da

Ezkontza homosexualen kontrakoak eskubide berdintasunaren eztabaidatik urrundu nahi izan dute eta aitatasunaren eta amatasunaren auziari helduta ari dira kanpaina egiten

garbi erakusten du Irlanda zenbat aldatu den azken urteetan. Aldaketa horren seinale nabarmenena Eliza Katolikoak Irlandako jendartearen duen indarra gero eta txikiagoa dela da. Oraindik lehenengo eta bigarren hezkuntzako eskolen %80 Eliza Katolikoaren mende daude eta bertako Konstituzioan herri katoliko bezala agertzen da Irlanda, baina sumatzen dira aldaketak. Azken urteetan Eliza kontu handiagoarekin ibiltzen da aholku moralak partitzerakoan, eta harrigarria ere gertatzen da, kontuan izanda duela urte gutxira arte Irlandako Errepublikako ministroak Elizatik pasatzen zirela baimen eske edozein lege sinatu baino lehen.

JENDARTEA, BAI EZKOAREN ALDE

Erreferendumaren bezperatan, eta artean kanpaina hasi gabe dagoela, Irlandako jendartearen homosexualitatearen aldeko ja-

rrera igartzen da. Bistakoa da, beraz, ezezkoaren aldekoek ez daukatela bide samurra aurretik. Egoeraren jakitun, badirudi ezezkoaren aldekoek albora utzi dutela gotzainen jarrera, «ezkontzak derrigorrez gizon eta emakume baten artekoa» izan behar duela defendatzen duena alegia, eta beste bide batzuk zabalduko dituzte. Badirudi beren borroka umeen eskubideen aldetik bideratuko dutela.

Hartara, erreferendumaren bezperatan aldekoek eta kontrakoek ikuspuntu desberdinetatik heldu diote gaiari. Ezkontza homosexualen aldekoentzat, «eskubide berdintasuna» dago oinarrian. Leo Varadkar ministroaren hitzetan, «gauzak dauden bezala, une honetan nik ez dauzkat beste irlandar batzuen eskubide berdinak, eta hori aldatu egin behar da».

Ezkontza homosexualen kontrakoek, berriz, eskubide berdin-

tasunaren eztabaidatik urrundu nahi izan dute eta aitatasunaren eta amatasunaren auziari helduta ari dira kanpaina egiten. «Ezkontza homosexualak legeztatzen badira, adoptatzeko eskubidea ere legeztatuko da eta haur askoren egoera okertuko da. Haur batek aita eta ama izan behar ditu». Gaur egungo Irlandan, baina, errealitateak datu argigarriak uzten ditu: lau umetik bat bizi da familian aitarik edo amarik izan gabe. Horietako batzuk bikote homosexualen seme-alabak dira, bide batetik edo bestetik guraso izateko modua egiten dutelako. Batzuetan gurasobakarraren paperean adoptatzen dituzte haurrak, eta, besteetan, Irlandatik kanpoko adopzioetara jotzen dute. Errealitate hori existitzen da dagoeneko, eta ez batean sortuko ezkontza homosexualen kontrakoek zabaldu nahi duten bezala.

Gobernuaren jarrera homosexualen ezkontzen aldekoa da. Horrek ez du esan nahi parlamentari batzuk kontra ez dauzenik, batez ere lehen ministroaren alderdikoak, baina oraingoz kontrakoaren ahotsa oso xume dabil. Pentsatzekoa da hori aldatu egingo dela datozen as-

teetan, behin erreferendumaren galdera zehaztu ondoren eta galdeketaren data gerturatu ahala. Baina galdera zuzena eta sinplea izatea espero da. Berez, irlandarrek honako esaldia beren Konstituzioan sartu edo ez erabaki behar dute: «Bi pertsona ezkon daitezke beren sexua kontuan hartu gabe».

Pentsa daiteke alderdi guztiak alde egonik eta Eliza Katolikoa- ren buruek egun daukaten irudi kaskarra kontuan izanda erreferendumaren emaitza nahiko garbi dagoela, baina ez aldekoek eta ez kontrakoek ez dakite zer gertatuko den. Irlandako erreferendumetan parte hartzea oso eskasa izaten da beti eta kontrakoek beren jendea bozkatzera eramatea lortzen badute, edozein emaitza da posible, nahiz eta jendartearen iritzia orokorra bestelakoa izan. Irlandako Gobernuak badaki hori gerta daitekeela, behin baino gehiagotan galdu baitituzte galdeketak. Horregatik, ezkontza homosexualen aldeko kanpaina ez da gobernuaren eskuetan egongo, jendartearen eskuetan baizik; ikasleak, katoliko progresistak, LGTB taldeak... lanean hasteko prest daude.

KONTRAKOEN «BUT» KANPAINA

Irlandan ohikoak dira erreferendumak. Edozein lege edo Europako akordioak Irlandako Konstituzioari eragiten badio, irlandar guztiek daukate bozka bidez beren iritzia emateko aukera. Hartara, maiatzean sexu bereko pertsonen arteko ezkontzari buruzko iritzia emango dute. Azken hamar urteotan egiten den hamargarren galdeketa izango da.

Berez herritarrek erabakiko dutena Irlandako Konstituzioan honako esaldia txertatu edo ez izango da: «Bi pertsona ezkon daitezke beren sexua kontuan hartu gabe». Esaldi laburra da, baina garrantzi eta pisu handikoa. Askoren ustez galdeketa garrantzitsua da batez ere Irlandako bikote ez heterosexualentzako, baina, aldi berean, Irlandatik kanpo ere garrantzia izango du, mundu mailako eragina izango duen esperimentu soziologiko bat izango baita.

«Bi pertsona ezkon daitezke beren sexua kontuan hartu gabe». Azken urteetako inkestek garbi utzi dute irlandarren gehiengo

oso zabala horren alde dagoela. Horren jakitun, ezkontza homosexualen kontra daudenek estrategia aldatzea erabaki dute, eta martxan jarri dute «But» kanpaina. «Gu ez gaude sexu berekoen ezkontzaren kontra, baina...». Eta bide horretan, kontra ez egon arren ez bozkatzeko eskatzen dute.

Ezezkoen aldekoek galdutzat eman dute dagoeneko ezkontza homosexualen inguruko eztabaida, eta borroka beste norabide batera begira jarri dute: «Ni ezkontza horien alde nago, baina eta umeak? Izan ere, oso garrantzitsua da aita eta ama edukitzea»; «gauean, gaixorik dagoenean, nori deituko dio ume txiki batek amarik ez baldin badauka?»; «gizonaren figura falta den familietan haurrak ez daude ondo; haurraren hezkuntzan akats larria da hori»... Horrelako mezuetan oinarrituko da kontrako kanpaina. Ikusi egin behar lau milioi irlandar hartuko dituen esperimentu soziologikoak zer ematen duen; aurreiritziek, usteek eta beldurrek zer pisu daukaten.





Ander Gortazar Balerdi - @derzu_uzala
Arkitektoa

Frei Otto ikusten dut

Maiz ikusten ditugu zerura begira jartzen garenean. Txoriak dira, zientoka, zeruan forma geometriko bereziak, elastikoak, ia likidoak marrazten dituztenak. Hegazti saldoak ez du zuzendaririk edo txori bakoitzaren posizio eta abiadura zehaztuko duen agindu hierarkikorik, eta, hala ere, ezkutuko logika sendo bat antzematen da forma horietan guztietan.

“Saldo portaera” esango nioke euskaraz ingeles hiztunek *swarm behaviour* esaten dioten kontzeptuari –onartzen dira kontraproposamenak–.

Kontrol egiturarik gabeko portaera orokor konplexua da saldo portaera, bakarkako portaeren emaitza. Unitate bakoitzak –txori, erle, arrain, gizaki– haren ondokoekin elkarreragiten du parametro jakin batzuen arabera: izan daiteke airearen abiadura, ondoko unitateekiko distantzia minimo eta maximoa, ondokoekiko batez besteko norabide eta abiadura... Bakarkako interakzio hauen batura da, momentu oro, egitura global konplexua azaleratzen duena.

Matematikariak hamarkadak daramatzate saldo portaera hauek gobernatzen dituzten arauak ikertu eta modelizatzen. “World War Z” filma ikusi baduzu, esaterako, suma zenezake zein arauen arabera modelizatu ziren Brad Pitt gogaitzen duten zonbi saldoak.


Espazioaz jabetzeko modu bat den heinean, saldo portaera kontzeptu arras interesgarria da arkitektura eta hirigintzaren arloan ere. Frei Otto arkitektoak urte luzez landu du metodologia hau; eraikinak, hiriak eta lurraldea begiratzeko beste modu bat. Zein parametroren baturak azaltzen du herrien sorrera eta kokapena? Alde batetik, baliabide naturalekiko distantzia ma-

ximo batek, baina baita beste herriekiko distantzia minimo batek ere. Herri kaskoan, etxeak ez dira ausaz eraiki, baserriak ez dira ausaz kokatu lurraldean, hiri handietako *slum* edo txabola asentamenduen forma organikoa ez da aleatorioki sortutako zerbait. Badira arau implizituak: unitateen azalera minimoa, altuera maximoa, bide sarearen luzera total minimoa baina unitate bakoitzak sarbide bat izan dezan bermatuko duena. Hala, arau ikusezin horiek ebazteko gai bagara, gai izango gara hiri edo lurralde egitura horiek etorkizunean izango duten portaera aurreikusteko.

Eskala txikiko adibide bat irakurri nion Frei Ottori: taberna huts bat betetzeko prozesua. Ikusi zuen izkinak direla okupatzen lehenak, besteekiko distantzia maximoa duten tokiak, alegia. Eta erdiko puntua betetzen dela ondoren, arrazoi berarengatik. Jendea sartu ahala, kuadrillen arteko distantzia ahalik eta handiena izan dadin saiatzen dela kuadrilla bakoitza, aurrera-atzera ezker-eskuin mugituz, taberna modu optimoan okupatzen den arte.

Ordutik, kosta egiten zait Frei Otto edonon ez ikustea. Trainbian noala ikusten dut, ebazten saiatzen naizenean zein arau ezkutukok baldintzatu duen nire eserleku hautua. Zinemara sartzean ikusten dut, pantailatik ez gertuegi baina ez urrunegi eseri nahi dudanean, erdiko puntuarekiko perpendikular baina korridorerantz makurtua, eta ondoan inor ez dugula ahal bada. Edo San Sebastian bezperan, telebistaz Konstituzio plazaren betetze prozesua disezionatzen dudana bitartean, parametroz parametro.

Jende saldoa gara azken finean, eta txori saldoa ginateke baldin eta hegan egin ahalko bagenu. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Gatazkaren saminak eta etekinak

Galdera bitxia luzatu du Mario Fernandezek: «Zer egingo luke zuetako bakoitzak, borroka antiterroristaren lehenengo lerroan egon den pertsona batentzako laguntza eskatu balizuite?». Eta erantzuna ere eman dio: «Suposatzen dut nik egin nuen gauza bera egingo lukeela zuetako bakoitzak, eta nire aurretik pertsona eta erakunde askok egin duten berdina». Ba ez, suposizio okerra, Fernandez jauna, aurretik gezur borobilez eta egia erdiz osatuta baitago zure galdera. «Laguntza» hori ez baita laguntza, ez du segurtasunarekin inolako zerikusirik (norengandik babestu behar zuten bada Cabieces 2012. urtetik aurrera, behin ETak borroka armatua amaituta, hilero 6.000 euro jasotzen hasi zenean?). Patrika betetze hutsarekin du zerikusia horrek. Kutxabankeko presidente ohiak egiten digun galdera maltzurari benetan helduz, errazagoa da erantzuna: «Dena hain garbia, onargarria, errespetagarria, ia eredu-garria baldin bazen, zergatik ez zuten jende aurrean azaldu eta justifikatu?». Gezurrak milaka bide, bihurgune eta zirrikitu ditu; egiak, berriz, bide bakarra eta zuzena.

Harridura sortzen du eskandaluak, baina gertatu den uneagatik bereziki. Aurretik, gatazka gordinen garaian, holakoak barra-barra aurki genitzake. Epai bidez egiaztatuta dago, Nafarroako presidente zen garaian, Leizarango autobidearen aurkako ETaren era-soak komisio ilegalak kobratzeko baliatu zituela Gabriel Urralburuk (orduantxe hobeto ulertu genuen ezker abertzalearen kontrako bere oldardaldien azpian, «kalean iraindu eta tu egin behar zaie» mikatz horien atzean, interes propiorik ere bazela). Rafael Vera harro ageri berri da GALen «lorpenaz», baina ez du hain gus-tura aldarrikatzen diru erreserbatuak poltsikora eramategatik kondenatua izan zela (orotara lau milioi euro eraman zituztela dio epaiak). Eta azken urteotan askoren ahotan ageri da segurtasun enpresa pribatuetan Jaime Mayor Orejak eta abarrek dituzten negozioak («horrelakoak gertatzen direnean, segurtasunik ez izatea interesatzen zaizu, eta ezin dut argiago mintzatu», ondorioztatu zuen Chema Herzog Errenteriako PPKo zinegotziak).

Nabarmen gelditu da ere, astebetetik hona, Cabiecesena askoren arteko kasu bakar eta txiki bat baino ez dela. Ez bakarrik Fernandezek beste izen batzuk mahai gainean jarri

dituelako, iritzigile askok leho horiek zabaltzeak dakartzan arriskuez ohartarazi dutelako. Kirats gehiegi, esan du baten batek. Noraino ordea? Zenbat enpresek eta erakundeek dituzte beren «diru erreserbatu» propioak, Estatuaz harata-go? Bidegik berak ere ba al zuen, A-P1 autobidean agertzen ari zena ikusita? Kazetarientzako «fondo de reptiles» famatu hura inoiz desagertu al zen?

Ukaezina da, hau guztia ikusita, gatazkak ez duela bakarrik samin ikaragarria eragin; etekin lotsagarria ere eragin du batzuentzat, oraindik neurtu ezin dugun tamainan. Etekin ekonomiko soilaz ari gara, etekin politikoaz ere luze hitz egin zitekeelako. Eta bada kontuan hartzeko beste ezaugarri bat: samina gatazkaren bi aldeek pairatu dute, eta eurekin batera baita ez alde batean ez bestean ez zeuden lagun askok eta askok ere. Etekinak, ordea, alde bakar batean pilatu dira, eta, dudarik gabe, alde horretan ere ez ziren guztion artean berdintasunez banatuko («lehen lerroan» Cabieces?).

Samina gatazkaren bi aldeek pairatu dute. Etekinak, ordea, alde bakarrean pilatu dira; ekonomikoak eta politikoak. Horrexegatik ari dira errazago elkartzen bi aldeetako biktimak bi aldeetako politikoak baino

Txingudiko elkarbizitzari buruzko jardunaldietan, indarkeria jasandako biktima ezberdinak elkartu dira pasa den astean. Hausnarketa interesgarri eta zintzo asko utzi dituzte, elkarren arteko solasaldi lasai eta oparoan. Bat aipatzeagatik, hauxe, ETak hildako espetxe funtzionario baten anaia den Josemi Gomez Elosegik plazaratutakoa: «Bildu garen guztietan, akordioetara heldu ohi izan gara. Sufri-menduak lotzen gaitu, eta horregatik beste pertsonaren tokian jartzeko gai gara». Horra hor paradoxa handia: gehien eman dutenek, benetako «lehen lerroan» egon direnek alegia, errazago heltzen diote elkarbizitzari, beren larruan gatazka hain gordin jasan ez duten politiko profesionalek baino. Cabieces, Urralburu, Vera, Mayor Oreja eta abarrena ikusita, azalpena begien bistakoa da: nekeza izan behar du etekinari (ekonomikoari zein politikoari) muzin egiteak. Saminak elkartzen du, etekinak urrundu. •

TORTURA VS SINESGARRITASUNA

Testigantza froga bihurtu dute,
nazioarteko estandar zientifikoekin bat

 JENDARTEA / oihana.llorente@gaur8.info

Tortura testigantzaren eta zantzu klinikoen arteko bat etortzea aztertzean datza Istanbulko Protokoloa. Hemengo eta hango profesionalek metodologia ezin zehatzagoa erabiliz Euskal Herriko 45 tortura salaketaren sinesgarritasuna frogatzea lortu dute. Aldi horietan, bederen, torturatu dela agerian jarritz.



Bost eguneko inkomunikazioak urte luzez irauten duten arrastoak uzten ditu torturatuaren osasunean. THINSKTOCK

Torturak gutxitan uzten ditu ikusgarriak diren aztarnak. Salaketak, baina, badaude. Baita ikusiezinak diren markak ere. Orban horiek agerian jarritz tortura bera frogatzea da Istanbulko Protokoloaren egitekoa. Barne minak torturaren beraren frogagiri bilakatzea, alegia.

Torturaren eta bestelako tratu edo zigor krudel, anker edo iraingarrien ikerkuntza eta dokumentazio eraginkorrerako eskuliburua da Istanbulgo Protokoloa. 1999. urtean osatu zen, osasunean eta giza eskubideetan entzute handia zuten 75 adituen eta torturaren aurka aritzen diren 40 erakunderen babesarekin. Ordutik hona Nazio Batuen Erakundearen babes eta bultzada jaso du Istanbulko Protokoloak, erreferentziazko nazioarteko estandar gisa onartzerantz iritsiz.

Eskuliburu honek ezartzen duen metodo zientifikoak Euskal Herriko buruko osasuneko eta auzitegi medikuntzako hainbat profesionalen arreta piztu zuen orain dela lau bat urte. Zehazki, Giza Eskubideen Aldeko Argituz Elkartea izan zen hamaika psikologo, psikiatra eta medikuren atea jo zuena. Tartean Olatz Barrenetxea eta Iñaki Markezena. «Hasiera batean dozena erdi profesional elkartu ginen eta txosten xume bat egitea zen asmoa; gauza batek bestera eramanez du, eta, azkenean, 35 profesional ia lau urtez aritu gara lanean», azaldu du Markezek.

Tortura testigantza torturaren beraren froga moduan onartzea izan da profesional hauen buruhauste nagusia. Tortura existitzen zela esan eta hura ukatzen zutenen arteko dikotomia izan da orain arte nagusi Euskal Herrian eta Estatu espainolean. «Batzuek baietz eta besteek ezetz zioten. Mundu aldrebesa dirudi gainera; haiek dituzte neurri guztiak baina torturatzen ez dutela frogatu beharrean, gu gara torturatzen dela frogatu behar dutenak», kexu da Barrenetxea.

Torturaren inguruko txostenak beti egin izan direla nabar-

mendu nahi izan du psikologo bizkaitarrak, baina azterketa kliniko horiek sinesgarritasuna eskuratzeko beharrezkoa zen funts nahikorik ez zutela onartu du. «Beti frogen *handicap*-a genuen, testigantzan egiatik zenbat dagoen eta asmatutakoa zenbat den frogatu ezina. Dinamika horretan katramilatuta egon gara», dio.

Istanbuleko Protokoloarekin, baina, dinamika horrekin hausteko aukera ikusi eta nazioarteko estandar zientifiko horietan sakontzeko erabakia hartu zuten. Lehen aldia izan da Istanbuleko Protokoloa Estatu espainolean erabiltzen dela, eta, ikuspuntu akademikotik independentzia bermatzeko, Euskal Herriko, Estatu espainoleko eta atzerriko 35 profesionalen eta hamaika erakunderen lanarekin egin dute aurrera. «Euskal Herriko gatazka politiko edo sozialarekin inolako harremanik ez duten Valentzia, Katalunia ala Madrileko profesionalak hartu dute parte. Era berean, azterlanak IRCT Torturaren Biktimak Birgaitzeko Nazioarteko Batzordearen eta EHUko Etika eta Ikerkuntza Sailaren babesa eta ikuskapena jaso du», azaldu du Markezek.

SOSLAI ZABALA

Praktikan, tortura salaketen eta salatzaileek erakusten dituzten sintomen arteko harremana aztertzean datza metodologia. Horretarako, soslai desberdineko 45 lagunekin aritu dira lanean. Belaunaldi desberdinetako kideak daude laginean, Espainiako Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak edota Ertzaintzak atxilotutakoak eta inkomunikazioa bukatuta torturak salatutakoak denak. Tartean badira ere Garzon Protokoloa deritzona aplikatuta inkomunikazioa igaro duten herritarrak.

Torturak sufritutako herritar bakoitzak atxiloteta unetik epaile aurrera igaro arte gertatu zen guztia azaldu behar izan du. Trauman espezializatutako psikologo ala psikiatra batek gidatu du elkarrizketa bakoitza eta hasieratik bukaerara arte kama-
ra batek grabatu du saioa. Medik-
kuak bikoteka aritu dira, bat



Goiko irudian, Ibai Esteibarlanda gaztea. Behean, Olatz Barrenetxea eta Iñaki Markez.

Marisol RAMÍREZ | ARGAZKI PRESS

Euskal Herrikoa eta bestea, *dupla*, Estatu espainolekoa. Hari elkarrizketaren grabazioa bidaltzen zioten, baita euskal medikuek egindako informea ere. «Haiek grabazio ikusi, gure informeak gainbegiratu eta zuzentzen etaosatzen zituzten. Haien ikuskapena oso ona izan da, distantziatik guk baina gauza gehiago ikusi dituzte. Neutraltasun handia lortu dugu kanpoko ikuskapenarekin», dio ziur Barrenetxeak.

Ordu askoko lana eskatzen du Istanbuleko Protokoloa zehatz ezartzeak, kasu bakoitzean 20 eta 40 ordu artekoa, izan ere, elkarrizketa benetan sakonak egin behar izan dituzte. «Torturatuak distantzia askorekin azaltzen badu gertatutakoa, elkarrizketa moztu eta erresistentzia horiek hausten joan behar gara. Gero eta denbora gehiago pasa atxiloteta unetik, gero eta erresistentzia gehiago aurkitzen ditugu; hala, elkarrizketa suabeetan ez da sintomatologiari apenas ageri», azaldu du psikologoak.

Batzuetan elkarrizketak ere eten behar izan dituztela eman du aditzera. Izan ere, mareoak, tentsio jaitsierak, dardarak, arnasketa arazoak edota antsietatea moduko sintomak azaleratu izan dira saioetan bertan. Une horietan, elkarrizketa eten eta terapia lasaigarriekin elkarrizketatua bere onera itzultzen saiatzen ziren. Ezinezkoa zen egoeretan hurrengo egunean itzultzeko eskatzen zieten. «Elkarrizketa gehiegi ez luzatzen

ABSOLUZIORAKO GILTZARRI ERE IZAN DA PROTOKOLOA

Ikerketak iraun duen bitartean azterketan parte hartzen ari ziren hainbat torturaturen aurkako epaiketak egin dira. Istanbuleko Protokoloari jarraiki pertsona hauei zegozkien adituen txostenak eginda zeudenez, abokatuak epaiketetan frogak gisa erabili dituzte, eta, Olatz Barrenetxeak nabarmendu duenez, erabilitako hiru epaiketetan auzipetutako herritarrak absolbitu egin dituzte.

Entzutetsuena, baina, Segiko kide izatea leporatuta atxilotutako 40 gazteen aurkako epaiketa izan da. Istanbuleko

Protokoloa halako makroepaiketa batean erabiltzen zen lehen aldia zen eta auzipetu guztiak absolbitu egin zituzten. Olatz Barrenetxea psikologoa Auzitegi Nazionalean izan zen auzipetuek egindako tortura salaketen eta jasandako tratuak utzitako ondorioen arteko lotura epaileen aurrean azalduz. Ez zen lehen aldia Madrileko epaitegi horretan bere bezeroen testigantzen berri ematen zuela, baina auzi hura «desberdina» izan zela dio. «Oso kontuan hartu zituzten aurkeztutako adituen txostenak, Istanbuleko Protokoloarekiko interesa

erakutsi zuten, galdetuz eta ulertu nahian. Beste askotan guk egindako informeak irakurri ere ez dituztela egin dirudi, baina oraingoan ezberdina izan zen», gaineratu du.

Gazte guztiak absolbitzeaz gainera, epaiak tortura lekukotzak jasotzen ditubai eta Istanbuleko Protokoloa bera aipatu ere.

Orain ikusteke dago Segiko kide izatea leporatuta epaitutako beste 28 gazteen epaian ere Istanbuleko Protokoloak sinesgarri jotako tortura testigantzak aintzat hartzen diren edo ez.



ahalegintzen ginen, behin zauria irekita eurentzat ona ez zelako. Ariketa bukatzean zauria ixten saiatu gara, zaintza zerbitzu bat eskaini diegu denei eta batzuei terapiara joatea ere gomendatu diegu», gaineratu du Markezek.

Alor metodologikoan zalantza izpirik suerta ez zedin, protokoloak berak ezartzen dituen pauso guztiak emateaz gain, torturaren inpaktuak eta sintomatologia aztertzeke nazioartean erabiltzen diren test psikometrikoak erabili zituzten. Zehazki, trauma ondoko estresa, depresioa, antsietatea, pertsonalitatea eta errua neuritzen ahalegindu ziren. Torturarekin batere harremanik ez duten galdetegiak ipini zizkieten torturatuak eta ahalik eta azkarren erantzun behar izan zituzten test horiek.

Emaitzak medikuen arreta ere eragin du. Izan ere, elkarrizketatuen % 83k trauma ondoko estresaren sintomaren bat erakutsi du. «Atxiloketa unea gogorarazten dieten estimuluen aurrean sintomatologia guztia itzultzen zaie askori: urduritasuna, izerdia, lotarako edo atentzioa jartzeko zailtasunak... –azaldu du Barrenetxeak–. Kontrol bat ala uniforme-dun bat ikustean, goizeko ordu

txikitan dei bat jaso ala leiho azpian balaztada bat entzutean...».

Denboraren poderioz desagertu ez diren sintomak dira psikologoek kezka eragin dutenak. «Hogei urte ondoren trauma ondoko estresa agertzen duten pertsonen atxilotu eta berehala egin izan bagenie azterketa, disparate bat aterako zen. Egia da, hala ere, denborak batzuetan lagundu egiten duela, baina, beste kasu batzuetan, sintomatologia izoztu egiten duela», dio medikuak.

Torturatuak hainbatek atxiloketa unean abiatutako gaixotasun psikosomatikoak dituztela ere frogatu dute, azalekoak, gastrikoak edo zefalea modukoak batik bat. Badira ere torturatuek eurek atxiloketa unearekin lo-

«Dentistenganako beldurra, bufandak ezin eramatea, soinua ezin jasatea, atzetik ezin agurtzea.... torturatuen artean oso ohikoak diren kontuak dira»

«Pertsona hauek torturatuak izan direla ziurtatu eta tratu anker horrek euren osasunean eragin handia izan duela baieztatu dugu ikerketarekin»

Nortasunaren haustura eta hondamena bilatzen duten hogeita hamar teknika jasotzen ditu ikerketak.
THINSKTOCK
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

tzen ez dituzten arazoak. «Dentistenganako beldurra, adibidez, ahoa denbora luzez zabalik edukitzeak eragiten dien itotze sentazioagatik; *buff* edo bufandak ezin eramatea, itotze sentazio beragatik; soinua ezin jasatea; atzetik ezin agurtzea; jende askoren artean akitzea... Askori pertsonalitatea bera ere aldatzen zaio», azaldu du.

SINTOMEK BIZIRIK DIRAUTE

Barrenetxeak, baina, argi adierazi nahi izan du sintomatologiaren agerpenak ez duela sinesgarritasunarekin loturarik. Ez bada ageri ez du esan nahi testigantza gezurra denik, argitu duenez, askotan minaren ukapena egiten da-eta. «Euskal Herrian gainera, indarrean dagoen kulturak eragin handia du horretan, dena delakoa ere aurrera egiten duten horietakoak gara, kulturalki bederen», ohartarazi du.

Eskuratutako emaitzak ez dira nolanahikoak. Testigantzen %53,3k gehienezko sendotasuna dutela frogatu da, %31,1 oso sendoak direla eta gainontzeko %15,6 sendoak. Ikerketan parte hartu duten 45 lagunak, beraz, torturatuak izan direla frogatu du Istanbulen Protokoloak.

«Pertsona hauek torturatuak izan direla ziurtatu eta tratu anker horrek euren osasunean eragin handia izan duela baieztatu dugu. Are gehiago, ikertu gabe itxi ziren 45 tortura salaketa egon direla frogatu dugu –dio argi Markezek–. Guk errealitate bat ikusarazi dugu, tortura arazo instituzional bat da eta norbaitek neurriak hartuko beharko ditu orain».

Aztertutako 45 kasuekin, errealitate bat bistaratu eta salatzeaz harago, tresna bat jarri dute osasun alorreko profesionalok mahai gainean. Babes eta onarpen zabala lortu duen metodologia indartsu bat, hain zuzen ere. Ikerketa joan den urteko irailean Madrilen egin zen Psikiatriako Munduko Biltzarrean aurkeztu zuten. Aurrez, baina, Londresen egindako aurkezpenean Amnesty International, Redress eta Reprieve nazioarteko gobernu kanpoko erakundeek babes eskuratu zuen ikerketak. Ginebrara ere bidaiatu zuten Nazio Batuen kontalariarekin aritzeko eta torturaren aurkako, terrorismoaren kontrako eta giza eskubideen aldeko kontalariak ikerketaren babesle izatea lortu zuten. «Estatu espainoleko eta atzerriko babes hori

bilatu dugu, ikerketa eta metodologiari pisu eta garrantzi handiagoa emateko», dio Markezek.

Torturaren aitorpenerako bide bat zabaltzeaz gain, Istanbulko Protokoloa torturatuentzat ere ikuspegi terapeutikotik «onuragarria» dela diote bai Markezek bai Barrenetxeak. «Askotan, lehen aldia da torturari buruz hitz egiten dutela. Aurrez antzeman edota torturarekin lotu ez dituzten ondorio psikologikoez ohartzen dira, eta horiek lantzen has daitezke», esan du Barrenetxeak. Markezen ustez, testigantzari berari sinesgarritasuna ematea garrantzitsua da torturatuentzat, orain arte gezurti moduan katalogatuak izan direlako.

Ibai Esteibarlanda ikerketan parte hartu duen 45 torturatu horietako bat da. 2009ko azaroan atxilotu zuten beste 40 gaztearekin batera, Segi gazte erakundearen aurkako polizia operazio batean. Polizi espainolaren esku igarotako inkomunikazioa egunetan torturatua izan zela salatu zuen epailearen aurrean, baita salaketa judiziala ipini ere. Polizia espainolak, baina, haren kontra egin zuen epaitegietan eta salaketa faltsua jartzeagatik salatu zuen.

Bi urte eman zituen preso Esteibarlandak, baina, inkomunikazioa gainditu ahala erabaki zuen askatasuna berreskuratuta torturak utzitako markak gainditzeko laguntza eskatuko zuela. «Tartean, ezin. Kartzelan hori guztia izoztu besterik ezin duzu egin, han ez dago laguntza aukerarik, norberak ahal duen moduan darabara», dio penatuta.

Askatasuna berreskuratuta eta lehen hilabetetako «euforiaren» ostean deitu zion azkenena psikologoari. Harekin tratamenduan zegoela, 2012. urtearen erdialdean, suertatu zitzaion Istanbulko Protokoloarekin lan egiteko aukera, eta ez zuen zalantzarik eduki. «Nire terapiaren atal moduan egin nuen», gehitu du.

Istanbulko Protokoloak testigantza oso sendoa zela ondorioztatu zuen eta bere gorputzak, buruak eta ingurune sozialak testigantzarekin harremana zuten aldaketak jasan zituztela.

Ikerketari amaiera emateko, aurkezpenaren ostean parte hartu zuten profesionalak, peritatutako 45 lagunek eta euren familiek topaketa batzuk egin zituzten, azterketarekin lortutakoaren berri emateko.

BABES GEHIAGOREN BILA

Aurrerantzean babes bila jarraitzeko asmoa dutela iragarri eta hurrengo geltokia Europako Parlamentuan egingo dutela ere esan digute. Era berean, Nazio Batuen Erakundeko torturaren aurkako kontalariari lan elkarrizketa bat galdegin diote dagoeneko. Izan ere, aurrean bertan egin beharra du Estatu espainoleko torturaren gaineko informea.

Euskal Herrian zein Estatu espainolean aurkezpen bira batean murgilduta daude uneotan egitasmoan parte hartu dutenak. Bartzelonan eta Madrilen aurkeztu dute jada eta Espainiako Neuropsikiatria Elkartearen inplikazio ere bilatu dute. «Bidea hori da, gure interesa ez da egitasmoa parte hartu dugunon artean geratzea, buru osasuneko edo auzitegiko medikuen artean edota abokatuen artean Istanbulko Protokoloa ezagutzea da xedea, horretan formatzea», gaineratu du Markezek. Barrenetxeak gogora ekarri bezala gainera, zehazki haien zat da Protokoloa, abokatu eta auzitegiko mediku, psikologo eta psikiatrei zuzendutako alderdiak jasotzen baititu. «Haien zat da lan tresna, haiek dira atxilotuak ikusten lehenak eta haiek ezagutu beharko luke», gehitu du.

Oraindik lan asko dago egiteko. Euskal Memoria Fundazioak 10.000 salaketa inguru zenbatu ditu 1960tik hona, eta hainbat ikerketaren arabera tortura jasan dutenen artean hirutik batek bakarrik salatzen ditu tratatu txarrak.

Ikerketarekin 45 lagunen tortura salaketak ziurtatu dira eta orain neurriak hartu behar direla defendatu dute aho batez bi medikuek. «Gure esku frogatzea besterik ez dago, erreparatze neurriak eta ez errepikatzeko garantiak jarri behar dira orain. Istanbulko Protokoloa, beste frogak bezala, behin mina egingdakoan heltzen da, beranduegi».

EMAITZAK ESTRAPOLATZEKO AUKERA, LAKUAREN ESKUTIK

Istanbulko Protokoloaren inguruko ikerketa Lakuako Giza Eskubideen Batzordean aurkeztu zuten iazko azaroan. Alderdi guztietako politikariek entzun zuten azalpena eta denek metodologiaren sendotasuna nabarmendu zutela ekarri du gogora Iñaki Markezek. Ordutik hona, Lakuako Bake eta Bizikidetzak Idazkaritzak 1960-2013 aldian izandako tortura salaketak ikertzeko abian jarritako proiektuan parte hartzeko gonbita jaso eta onartu egin dute Istanbulko Protokoloaren ikerketan aritutako hainbat profesionalak. Tartean, Barrenetxeak eta Markezek berak. Lan «nekeza» izango dela argi dute biek, tortura kasu batzuk orain dela ia mende erdi gertatutakoak direlako; «erresistentzia handiak aurkituko ditugula aurreikusten dugu, zaila da hainbeste denbora igaro ostean inkomunikazioko egun horietara itzultzea –dio Barrenetxeak–. Ondoren, zauria behin irekita, pertsona horiekin egin beharreko zaintza ere handia izango da».

Lau urteko ikerketaren ostean, 45 kasu baieztatzea lortu dute, orain, baina, azterketa berria kuantitatiboki aurrerapauso nabarmena izango delakoan dira. «200 kasu inguru ikertzen baditugu, emaitzak estrapolatu ahaliko dira, eta, beraz, ikerketa honetatik ondorio benetan interesgarriak atera daitezke», dio itxaropentsu bizkaitarrak.

Paco Etxeberria auzitegiko medikua buru duen EHUko Kriminologia Euskal Institutuarekin batera ari da lanean Jonan Fernandezekin idazkaritza. Lehen erroldaren emaitzak orain astebete jakinarazi zituzten eta oraingoz Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako herritarren 3.587 tortura salaketa erregistratu dituztela eman dute aditzera. Salaketak Espainiako Polizia Nazionalaren, Guardia Zibilarren eta Ertzaintzaren kontrakoak dira.

Ikerlana 2016ko irailean osatzea espero dute. Ordura arte, lanak hiru fasetan egingo dira, bost azterlan osagarri barne hartuz. Lehen fasean, sei eta zortzi hilabete arteko iraupena izan duena, salaketak zenbatetsi dira, tratatu txarren eta torturen prebalentziari buruzko informazio agiri erabilgarrien azterlanaren txostena eginez eta hainbat iturriko informazioa aztertuz, hori guztia aurkeztu berri duten errolda osatzeko.

Orain abiatuko dute bigarren fasea, bederatzi eta hamabi hilabete artean iraungo ditu, eta, egiaztapena izango da fase honen helburu nagusia. Lan horretan arituko dira Barrenetxea eta Markez, beste hamaika psikologo eta psikiatrarekin batera. 200 kasu adierazgarri eta 40 kasu enblematikoren azterketa kualitatibo, narratibo eta berariazkoa egingo dute datozen hilabeteotan.

Hirugarren fasean, amaierako txostena osatzea aurreikusten dute, ondorioak eta gomendioak jasoz.



Paco Etxeberria eta Jonan Fernandez, tortura salaketan gaineko Lakuaren proiektua aurkezten. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS


URTE BATEKO GERTAERAK

KONTAKIZUNAK
LEHEN ORRIALDEAK
GRAFIKOAK
KRONOLOGIAK
DOKUMENTUAK
ACIRIAK
ESTATISTIKA
ANALISIAK
ARGAZKIAK
KRONIKAK
UMOREA



**Otsailaren
14 eta 15ean,
larunbata eta igandea**

11,95 €
soilik



MOZORROAK eta mozorrotzeko erak

DENBORAREKIN PRESTATZEN DITUZTENAK



AZKEN ORDUAN PRESTATZEN DITUZTENAK



ANIMALIEN JANTZIAK ETA BEREN ALDAERAK



GENERO KONTUEKIN BUELTA DABITZANAK



BIKOTEAK



KONTZEPTUALAK



iRRITZIA:



Ainara
AZPIAZU
"AXPI"

MINBIZIA ETA KIROLA

Minbizia duten pertsonek
jarduera fisikoa egiteko
jarraibideak bildu dituzte

📁 **OSASUNA** / amagoia.mujika@gaur8.info

Apenas aztertu den jarduera fisikoak minbizia dutenengan duen eragina. Hari horri tiraka jardun dira lau ikerlari eta gaixoei zer-nolako kirol jarduera egin behar duten jaso dute gida batean. Izan ere, kirolak bizi itxaropena luzatzen, tratamenduaren ondorioak samurtzen eta bigarren minbizi bat izateko aukera murrizten lagun dezake.

K irola osasuna da, baita osasunez makalago dabil-tzanentzat ere. Baina garrantzi-tsuia da norberak bere neurriko jarduera fisikoa egitea. Eta minbizia dutenen neurriak ez du zerikusirik sano daudenen neurriarekin. Arazoa da duela gutxira arte ez dela a-pe-nas aztertu jarduera fisikoak minbizi gaixoenengan duen eragi-na eta, horregatik, ez zegoen gai-xoontzat egokia den jarduera fi-sikoaren gida espezifikorik. Hartara, minbizia zutenei gaixo-tasunik gabeko pertsonentzat eginak dauden gidak jarraitzea gomendatzen zitzairen. Eta ez da gomendio zuzena. «Minbiziaren eta tratamenduen eraginez, per-tsona hauen jarduera fisiko ko-purua, gaitasun aerobikoa, inda-rra eta masa muskularra nabari jaisten dira. Horrela, argi dago minbizia daukan pertsona batek ezin duela pertsona arruntentza-ko eratutako gida bateko inten-tsitate berdina jarraitu», azaldu dute Erreka Gil-Rey eta Sara Mal-donado ikertzaileek.

Euskal Herriko Unibertsitate-ko Jarduera Fisikoaren eta Kiro-laren Zientzien Fakultateko Gor-putz eta Kirol Hezkuntzako Saileko kide dira Gil-Rey eta Maldonado, eta, Miranda de Ebroko Udaleko Medikuntza eta Kirol Kabineteko kideak diren Koro Quevedo-Jerezekin eta Fer-nando Herrero-Romanekin ba-

tera, minbizia duten gaixoen-tzako ariketa fisiko intentsiboak egiteko jarraibideak zehaztu di-tuzte. Halakorik egin den lehen aldia izan da eta “International journal of sports medicine” al-dizkariak argitaratu du “Exerci-se Intensity Guidelines for Can-cer Survivors: a Comparison with Reference Values” izeneko lana. Lau ikertzaileek jarduera fisikoak minbizi gaixoenengan duen eragina zorrotz aztertu du-te eta ateratako ondorioetatik ti-raka osatu dute gaixoei egin be-

Minbizia duten pertsonentzako jarduera fisikoa oso onuragarria izan daiteke. Baina garrantzitsua da beren errealitatera egokitutako jarduera izatea. Horretarako gida bat osatu dute lau ikerlariek. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

harreko jarduera fisikoen gida zehatza.

Lehenik eta behin, Fernandez Herrero doktoreak 152 minbizi gaixori beren gaitasun fisikoa baloratzeko proba zuzena egin zien Miranda de Ebron, Burgo-sen. «Lehenbizi, ospitaletik on-kologoak gaixoari baimena ematen zion jarduera fisiko pro-grama batean sartzeko. Behin baimena edukita, Miranda de Ebroko kirol medikuntza zen-trotik pasatzen ziren bertan Fer-nando Herrero medikuarekin kontsulta bat izateko; osasun eta bizi kalitate galdeketa ba-tzuk betetzen zituzten, gaitasun fisikoa baloratzeko proba zuzena egiten zuten eta baita gor-putz osaketaren analisi bat ere», zehaztu dute EHUko ikerlariek.

Hartara, kontsulta horietatik ondorioztatu zutenez, «popula-zio honek, adin bereko pertsona arruntek baino %35-50 gaitasun aerobiko baxuagoa dauka eta minbizi gaixoenentzat edozein jar-duera fisikok askoz ahalegin handiagoa eskatzen du. Hori ja-kinik, hemendik aurrera, gaita-sun fisikoa baloratzeko proba zuzena egin gabe ere, minbizia duten gaixoei euren bihotz maiztasun maximoa ateratzeko formula bat aplikatzeko mo-





duan izango gara, euren errealtatera askoz gehiago hurbilduz. Horrela, jarduera fisiko programa bat diseinatzerako orduan, jakin dezakegu, pultsometro baten laguntzaz, bihotz maiztasun maximoaren %70etik gorako edozein jarduerak intentsitate altua suposatuko duela, eta badakigu anemia, immune sistema baxua edo hezur transplantea izan duten pazienteengan kaltegarria izan daitekeela hori».

KIROLAREN ONURAK

Ikerketan parte hartu duten profesionalek nabarmentzen dutenez, «minbizia kontzeptu oso orokor eta konplexua da, 200 gaixotasun ezberdin barne hartzen dituena. Horiek guztiek ezaugarri komun batzuk dituzte: kontrolik gabeko hazkuntza zelularra, kode genetikoan gertatutako mutazio edo akatsen ondorioz beste organoak inbaditzeko eta metastasia egiteko gaitasuna, azidosia, hantura eta sistema immunologiakoaren ahultzea».

Hartara, eta hainbeste gaixotasun ezberdin egonda, zaila da ondorio orokorrak ateratzea. Baina, oro har, honako onurak baieztatu daitezke: egiaztatu da

Jarduera fisikoak gaixo dauden bizi itxaropena luzatzen lagun dezake, tratamendu latzen ondorioak samur ditzake eta bigarren minbizi bat izateko aukera bera ere murriztu dezake.

Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

pertsona hauen biziraupena igotzen dela, tratamenduen bigarren mailako ondorioak (nekea, mina, hezur osasuna, masa muskularraren galera...) gutxitzen direla eta bigarren minbizi mota bat izateko zein beste edozein gaixotasun izateko (diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, sindrome metabolikoa, osteoporosia...) aukerak gutxitzen direla.

«Nekea eta mina gutxitu egiten dira eta gaitasun kardiobaskularra eta gorputz osaketa hobetu. Azken horrek izugarritzko garrantzia dauka. Minbizi gaixotik izugarritzko masa muskular galera ematen da askotan, kakexia deitzen dena. Ematen diren heriotzen %20 arrazoi horregatik izaten dira. Beraz, indarra eta masa muskularra handitzea izan beharko litzateke kirol programaren helburuetako bat», nabarmendu dute EHuko ikertzaileek.

Gainera, onura horietako asko beste gaixotasunen bat duten pertsonen lortzen dituzten berdinak izaten direla esan dute; «diabetesa edo gaixotasun kardiobaskularra dutenen artean, esaterako, jarduera fisikoak eragiten duen insulinararen sentsi-

bilitatearen hobekuntzak zein gantz azidoen mobilizazioak hilkortasun arriskua jaitsi dezake». Eta gorputzean ez ezik, alderdi psikosozialean ere baditu onurak jarduera fisikoak. «Bizi kalitatea eta autoestimua igotzen dira, eta, aldiz, depresioa, beldurra eta antsietate maila jaitsi egiten dira».

INDARRA LANTZEA, GARRANTZITSUA

Ez da erraza minbizia dutenek jarduera fisikoa egiteko jarraibideak orokortu eta laburbiltzea, gaixo bakoitzak bere ezaugarrietara moldatutako kirol programa bat izan beharko baitu; minbizi mota, fasea, tratamenduak, bigarren mailako ondorioak, bestelako gaixotasun edo osasun arazoak, ezaugarri fisiologikoak eta psikologikoak kontuan hartuko dituenak. Baina Erreka Gil-Reyk eta Sara Maldonadok jarduera fisiko horrek hiru atal nagusi izan beharko litzatekeela nabarmendu dute: alderdi kardiobaskularra, indarra eta arlo psikologikoa.

«Guretzat garrantzitsuena indarra lantzea da, aldi berean gaitasun kardiobaskularra handitzen baita. Indarra eta masa muskularra handitzeak izuga-

rrizko eragin positiboa izan dezake kakexia duten gaixotengan. Indarrari dagokionez, norberaren pisuarekin ariketak egin daitezke, goma elastikoekin, hidroterapia edo uretan egiten diren ariketen bidez, gimnasioko makina eta pisuekin edota taldeko jardueren bidez (pilates, step, flying...). Azkeneko indar gidekin minbizi gaixotzat astean bizpahiru egunetan ariketak egitea gomendatzen dute 45-60 minutuz, 8-12 ariketa, 2-4 serie eta 10-17 errepikapen bitartean, beste errepikapen bat egiteko indarrak ia ez izan arte. Alderdi kardiobaskularrari dagokionez, astean intentsitate ertaineko 150 minutu pilatzea izango da helburua, edota 75 minutu intentsitate altuan. Zailena da jakitea zer-nolako intentsitatean egin behar dugun lana, baina horretarako argitaratu dugu gida hau. Ibiltzeaz eta korrika egiteaz aparte, uretako jarduerak, dantzak eta aerobikak, bizikletak eta arraunak onura nabarmenak ekar ditzakete, batez ere gantz ehuna gutxitzen delako eta gaitasun aerobikoa handitzen delako, nekea atzeratuz. Bukatzeko, alderdi psikologikoa ahaztu gabe, astean 1-3 egunetan (45-90 minutu eguneko) intentsitate lasaia suposatzen duten yoga, tai txia, meditazioa, kontrol posturala edo stretching global aktiboa... bezalako jarduerak egitea oso gomendagarria da estres, antsietate, min eta neke maila gutxitzen baitute eta bizi kalitatea, umorea eta mugikortasuna handitu».

Jarduera fisikoa lagungarria zaie minbizia dutenei, bai alderdi fisiologikoan eta baita psikosozialean ere. «Gainera frogatuta dago jarduera fisikoa egiten duten pertsona osasuntsuek edota gaixoen minbiziaz hiltzeko aukera askoz gutxiago dituztela». Hori bai, adituek bereziki nabarmentzen dute norbera bere neurri aritzearen garrantzia. Eta, orain, minbizia dutenek ere eskura daukate beren neurri egokia zehazten duen gida. Gidaliburua, printzipioz, argitaratu den aldizkarian («International Journal of Sports Medicine») agertuko da.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

PISAren gomendioen gainetik LOMCEk egingo duena

PISAk 2014. urtean egin zuen azken neurketa, bosgarrena, hain zuzen. Neurketa horretako arduradunei Espainiako Estatuko Hezkuntzak dituen ahulda-
deen gainean galdetu zieten elkarriketa batean. Bi aipatu zituzten: alde batetik, ikasleak buruz ikastera ohituta daudela, eta, ondorioz, memorizazioa soilik lantzen dutenez, ez dutela pentsamendu abstraktua garatzen; eta, bestetik, sistema eta eskola hezitzailearen transmisioan oinarrituta daudela, eta, ikasleen parte hartzea ez dagoenez bermatuta, aspertu egiten direla eta, ondorioz, ez daudela motibatuta.

PISako neurketetan emaitza onak eman dituzten herrialde batzuek badute, gainera, nabarmentzen dituen beste ezaugarri interesgarri bat: ekitatea. Finlandiak, esaterako, emaitza onak lortzen ditu, baina ekitate handiz. Beste herrialde batzuetan, aldiz, ikasle oso gutxi batzuek emaitza oso onak lortzen dituzte, eta beste batzuek, berriaz, oso eskasak. Ekitatea erakusten duten sistemek helburu bat dute: ikasleen aniztasuna abiapuntu izanik, ikasle guztiek emaitza altuak lortzea. LOMCeren helburua, ordea, gutxi batzuek emaitza altuak lortzea da, denen emaitza onak alboratuz. Hezkuntza Sistemak, beraz, emaitzen kuantitatibotasunaz gain emaitzen kualitatibotasunaz desberdintzen dira.

Gaur egun denen ahotan errazegi dabil, akaso, "hezkuntza kalitatea" kontzeptua. Zer barne hartu beharko luke, baina, kalitate horrek? Batik bat, eskolaren zeregina guztien eskubideak bermatzea izatea, eta, bide horretan, helburua ikasle guztien ikaste prozesuaren arrakasta izatea.

Bestalde, Hezkuntza zientzia den heinean, gainerako zientzietan bezala, adituek ikerketak eta aurkikuntzak egiten dituzte. Beste zientzietan ez bezala, ordea, zientifikoki demostratutako teoria eta praktika berri horien aplikazioa oso nekez egiten da eskolan edo ez da egiten. Hezkuntza zientziek, eta eredugarriak diren Finlandiako hezkuntza sistemek, ikuspegi humanistikotik planteatzen dute hezkuntza,

ikerketan sustatua. Ikaskuntza munda ezagutzera, ikasgaien arteko mugak gainditzera, proiektuak lan egitera eta interesguneak indartzera doa.

Hainbat ahotsekin batera, Euskal Curriculumak konpetentzietan oinarritutako ikuspegi humanista agertzen du. Hezkuntza planteamendu hori pertsonan fokutzen da. Gaur egun ongi dakigu alderdi kognitiboarekin batera beste alderdi batzuek ere, afektiboak eta motibazioak, adibidez, berebiziko eragina dutela ikaste prozesuetan. Lege berriak, alta, ez ditu aipatu ere egiten aukera berdintasuna, ikasleak partaide izatea, elkarbizitza, hezkidetzatza, eta abar. Alderdi humanoak, beraz, alde batera utziko du.

Europatik etengabe aipatzen ari dira pertsonak oinarritzko gaitasunetan hezi behar direla, konpetentzietan: jendarte konplexu batean bizi gara, aniztasuna da nagusi, desberdintasun ikaragarriak daude. Etengabe jasotzen ari gara informazioa eta zailtasunak

ditugu informazio uholde hori kudeatzeko. Horren guztiaren aurrean, inoiz baino beharrezkoagoa bihurtu zaigu eskolan ikasleen oinarritzko gaitasunak garatzea.

LOMCEk, ordea, ikasi beharko diren kontzeptuen zerrendatze bat ezarriko du. Ez ditu, sikiera, jarrerazko edukiak kontuan izango. Zerrenda hori, interes zehatz eta interesatu batzuei erantzutera dator, interes merkantilista eta neoliberaleari, zehazki.

Dagoeneko badakigu elkarrekin ikasiz gehiago eta hobeto ikasten dugula, eta, gainera, bizitzarako beharrezkoak zaizkigun konpetentzia asko garatzen ditugula. LOMCEk, ordea, emaitza onak ditu helburu –ikasle gutxi batzuenak–, horretarako bultzatuko dituen estrategiak bakarka ikastea, memorizatzea eta abar izango dira. Bide hori ikaste prozesuaz ikerketek diotenaren justu kontrako norabidean doa, eta PISako adituek nabarmendutako bi ahuldadeetan sakontzera dator. •



Ikasleak buruz ikastera ohituta daude eta ez daude motibatuta. THINKSTOCK

{ koaderno } Iker Barandiaran

Igogailuek aguantatu behar dutena

A itortu beharra daukat, aspaldiko partez, zeharo utzita nuen praktika bati eutsi diodala, baina zin dagizuet asmoa dela, nire aisialdiaren kudeaketa hobetzeko bidean, laster uztea eta jada ahaleginetan hasia naizela. Bai, aspaldian, oharkabea, telebista ikusten aritu naiz, tartean telezaborra. Ondorioz, Euskal Herriko zein Espainiako hainbat pertsoneri –izenez erreferentzia nuenak eta baita ezagutzen ez nituenak ere– aurpegia jarri diet. Arrazoiak ez da izan ohiko kafe tarteetan “outsider” sentitzeaz nazkatu izana. Ohituta nago aspalditik “herri-ezagutza” deritzotenetik kanpo egoten eta telebista, aurkezle, aktore, kirolari eta are gutxiago hemengo edo ondoko “farandula”-ko pertsonaiez ezer gutxi jakiten. Ez ditut horiek guztiak zaku berean sartuko, baina azken udatan gure kostaldean egindako egonaldietan gertatu izan zait norbaitek, aztoratuta, ohartarazi izana ondoan nituenak futbol jokalaria zirela. Nik halako kasuetan lehenengo erreflexua eskuak poltsikora eramatekoa dut eta jarraian ohartarazleari futboleko Lehen Mailako jokalarietatik ezagutzen dudak bakarria nire herrikidea dela azaltzen saiatzea.

Inguruan ditudan modernoek esaten didate jada ez dela telebistatik ikusten, akabatuta dagoela, eta gaur egun gutako gehienok Internet bidez aukeratu eta kontsumitzen dugula kultura eta aisialdia. Ez nago guztiz ados, eta ez espresuki telebista defendatzearen. Oraindik telebistak gizartearen izugarritzko eragina duelakoan nago. Hain zuzen ere, ezagutzen ditut antzerkian zein zineman ibilbide luze eta esanguratsua egin baina ia jende guztiak inoiz “Goenkale” telesailean parte hartu dutelako bakarrik ezagutzen dituen aktoreak; beraien lana horrexegatik soilik baloratzen diete. Gajoak haiek, are eta gehiago hemendik aurrera horrek ere ez baititu ikusgarri egingo! Hurbilago etorrita, nik neuk Goienera enpresako hedabideetan lan ugari egin nituen luzaroan, baina jendeak beti gogora ekartzen du Goienera Telebistan aritu nintzenekoa, eta oraindik ere han jarraitzen dudalakoan daude asko eta asko. Are gehiago, duela urte gutxi tinbrea entzun eta etxeko atea Jehovaharen lekuko batzuei zabaltzerakoan, horietako batek «*tú sales en la tele*» bota zidan harrituta. Bi pertsonen elkarriketa soilean oinarritutako euskara hutsezko saioa izanda ez zuen ezer ulertuko, baina...hari ere nonbait erretinan gelditu!

Kafe-orduko tertulia hutsailetan eta eraikin handietako igogailu geldoetan eguraldiaz hitz egiteak ibilbide mugatua

duenez, jendea behartuta sentitzen da, isiluneen beldur irrazionalak bultzatuta, funts handirik gabeko kontuak berba-gai jartzen eta hor telebista izaten da lehengai nagusienetako. Hala, ezagutzen dut tertulia horien parte izateko aste barruan ordu txikietan “Gran hermano” ikustera bere burua behartu zuenik ere. Kafea albo batera utzi gabe, ezin ahaztu egunkari honetan lanean nengoela nire lankide batek kafe-makina hornitzera etortzen zen gizona ikusi zuenean hartu zuen zorioneko ezustea eta ilusioa; eta ia segidan atsekabea, nik bertsolaritza modan jarri zuen belaunaldiaren aurrekoak izenez baino ezagutzen ez nituela egiaztatzean. Nire alde esan beharra daukat lankide nuen langile hori bertsozale amorratua dela, eta jada horretan ez dela aldatuko, ezta ahaleginduko ere. Baina nik ere baditut zaletasunak, eta, nahiz eta ez naizen batere mitomanoa, artista bat ikusi eta berehala berarekin hitz egin nahi izan dudak aldirik ere izan dut. Pentsa ze *glamour*-a: “TMEO” aldizkarian jaio eta hazitako “Herminio bolaextra” komiki-pertsonaiaren egile Mauro Entrialgorekin *matinée* kontzertu batean topo egin eta hunkituta zoriondu nuen, bere autografo-marrazki bat eskuratuta.

Argi eta garbi, telebistakoak nagusi izan ohi badira ere, bakoitzak bere erreferenteak ditu, nonbaitekoak. Eta hortik tiratuta ezin ukatu xelebrea izan zela orain dela urte batzuk Venezian gertatu zitzaizkiona: San Markos plaza ezagunean uso tonak uxatzen nengoela, bat-batean 8oko hamarkada bukaeran Ingalaterrako hardcore-punk eszenaren zeresana eman zuen Subhumans taldeko abeslari Dick ikusi nuen. Bi alditan pentsatu gabe berarengana jo nuen eta nire burua aurkeztu nuen. Gizona aho bete hortz eta lotsatuta gelditu zen sorpresak jota, zer esan jakin gabe; eta berarekin zegoen laguna, aldiz, egoera bitxiak jabetuta eta abeslaria hala ikusita barreari eutsi ezinik. Azaldu beharra dago, lehenengoaren haritik, Subhumans taldea ez zela inoiz telebistan agertu, Ingalaterratik kanpo zaletu gutxiak besterik ez dugula gogoratuko, seguruenik atzerrian inork inoiz ez duela ezagutu; eta antzeko egoera bat irudikatzenkotan pareka daitekeela Bap! taldeko abeslaria Frantziako Estatuan, musika giroetatik kanpo, portugaldar batek ezagutu izanarekin.

Iraganean Bap! eta gaur egun Inoreneroni taldeko abeslari den Enekok “The revolution has been televised” abesten du aspalditik, eta, hala, ezer ez da aldatu. Izan ere, errua ez dago telebistan, gudan baizik. •

«The revolution has been televised». Ezer ez da aldatu, errua ez dago telebistan, gudan baizik

Zenbaki esanguratsuak pilatzen ditu: 37.000 erreferentzia eta 8.000 autore baino gehiago. Hamabost urteko ibilbidea egina du UEUren Inguma datu-baseak, eta, denbora horretan guztian, datu-basea bera edukiz aberastea ez ezik, euskaraz zientzia egiten duen komunitateari itxura ematea eta trinkotzea ere lortu dute. Nazioartekotasuna dela-eta ingelesak zientzia arloan hartu duen pisua medio, euskaraz egiten den zientzia produkzioak behera egin duela ohartarazi du Uxune Martinez Inguma datu-baseko kudeatzaileak. Egoeraren aurrean zera dio: «Gauza bat da nazioarteko komunitate zientifikoari lanaren berri ematea in-

gelesezt, baina hemen ere euskaraz egiteko bideak badira». Euskaraz egiten den lanari balioa ematea da, bere ustetan, gakoa. Ingumaren erronkei dagokionean, argi du: sarean ikusgarritasuna lortzea eta ezagutaraztea.

Hamabost urteko langa gainditu duzue. Zein hutsune betetzeko sortu zen datu-basea?

2000. urtean sortu zen Inguma. Sorrerako helburua euskaraz, bai ahoz bai idatziz, egiten ziren zientzia arloko lanak biltzea zen; bidez batez, lan horien egileak ezagutzera ere eman nahi genituen. Egileak nolabait sakanatuta zeuden eta ez genituen ezagutzen. Euskaraz lanak egiten zituen komunitate zientifiko bat ba ote zegoen ere ez genekien. Komunitate horri itxura



«Ez dakigu erdaraz bilatutako gai hori euskaraz ere aurki dezakegula.

Ingumak nahi duena euskal produkzioa begien bistara jartzea da; hau ere badago, gu ere gai gara eta adituak baditugu»

ematea eta trinkotzea zen, beraz helburua. Hasiera batean kultura eta zientziako gaiak euskaraz lantzen zituzten zer-nolako aldizkariak zeuden finkatzen hasi ginen. Argitaletxeak ere aztertu genituen, zein motatakoak ziren, unibertsitateetan eta handik kanpora; hala, zein zen euren lana eta non zituzten euren bildumak ikusi genuen. Datu horiek pixkanaka hasi ginen biltzen eta egile desberdinek egingako lanak jasotzen.

Ahozko lanak jasotzea ez da ohikoena agian.

Ahozko lanak jasotzea guztiz beharrezko ikusi genuen. Gure hizkuntzan transmisio handia egin da ahoz. Agerikoa da bertsogintzak, kantagintzak... duten pisua gure herrian. Ohitura as-

ko ahoz aho transmititu dira. Zientzian ere gertatzen da hori. 1973tik aurrera ahozko produkzioa handia izan zen. Idatzizkoa soilik jasotzen bagenuen, proiektua hanka motz geratzen zela uste genuen, ez genuela dena biltzen. Egia da ez dela gauza bera. Idatzizkoa ikusi egiten da eta egin dela ziurtasun gehiagorekin esan dezakezu. Ahozko lanak hitzarmenen bidez jasotzen ditugu. Unibertsitate eta erakundeekin lan egiten dugu, haiek jakinarazten digute zer egin den eta nork egin duen.

Zientzia euskaraz egiten duen komunitatea irudikatu du Ingumak.

Esan izan zaigu, kanpotik batez ere, zientzia eta kultura ezin zi-rela landu euskaraz, gure hiz-



«Euskarari beste hizkuntza guztiei gertatzen zaiena gertatu zaio, nazioartekotasunak eragin dio. Zientziaren ikerketa ingelesez argitaratzen da»

kuntzak ez zuela gaitasunik kontzeptu batzuk adierazteko eta ez zegoela pertsona egokirik hori egiteko gai zenik. Argi dago hori gezurra dela. Adierazgarria da Einsteinek 1919an kaleratu zuela bere teoria famatua eta 1923an jada euskaraz baze-goela. Gu gai ginen zientzia euskaraz egiteko, baina jaso gabeko zegoen.

Datu-base oparoa duzue, zenbaki esanguratsuak dituen. Gaur egun 187 erakunderen lanak jasotzen ditugu gure datu-basean. Urtero-urtero erakunderen bat gehitzen saiatzen gara. Dagoeneko 37.000 erreferentziatik gora jasoak daude eta 8.000 autore baino gehiago. Kopurua handia da kontuan izanda zer nolako komunitate txikia garen.



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

UXUNE MARTINEZ

INGUMA DATU-BASEAREN KUDEATZAILEA

UEUren datu-basearen muinak primeran ezagutzen ditu, bai eta zientzia produkzioaren inguruko xehetasunak eta dibulgazioaren gorabeherak ere.

Maidar Eizmendi

Jasota duguna euskara batua finkatu zenetik honakoa da.

Gaur egun, ordea, ingelesa da zientzia egiteko gehien erabiltzen den hizkuntza. Horrek nola eragiten du?

Joxe Ramon Etxebarriak esaten duen moduan, gure komunitateak gainerakoek dituzten arazo berak ditu. Euskarari dago-kionez, hazkunde bat izan da 1965. urtetik aurrera. Egon dira egile batzuk oso oparoak, ehundik gora erreferentzia pilatu dituztenak. Nolabait apustu bat egin zuten bere garaian euskaraz aritzeko zientzian. 2000. urtera arte produkzioa handitzen joan da, baina une honetan beheranzko joera nagusitu da. Zer gertatu da? Euskarari beste hizkuntza guztiei gertatzen zaiena gertatu zaio, nazioartekotasunak eragin dio. Zientziaren ikerketa ingelesez argitaratzen da. Hori asko nabaritu dugu Inguman. 2005. urtetik aurrera produkzioa jaitzen ari da apurka-apurka.

Alor guztietan gertatzen da hori?

1970etik 1995era arte zientzia gogorretan, fisika, kimika, matematika, natur zientziak... euskarazko produkzio handia zegoen. Egun ez. Giza zientzietan mantendu egin da euskararen erabilera eta esan dezakezu alor horrek mantentzen duela produkzioaren hein handiena.

Euskaraz egitea lehen balorea zen, orain, berriz, ez. Buelta emango du egoerak?

Nik neuk zail ikusten dut. Ez dut gaizki ikusten ikertzaileek ingeles idaztea, ezagutzen dudalako ikerketa mundua eta badakidalako lehen mailako ikerketa erreferentzialtasuna lantzeko ingelesez egin behar dela. Euskal Herrian ere ikerketa talde asko euskaldunez osatuta baldin badaude ere, ingelesez egiten dute lan, nahiz eta euren artean harremana euskalduna izan. Horrek ez du kentzen, ordea, lan horren berri emateko euskara ezin denik erabili. Nazioarteko komunitate zientifikoki lanaren berri ingelesez emateak ez

du esan nahi hemen euskaraz egiteko bideak ezin direnik garatu. Arazoa da zoritxarrez ez dela berdin baloratzen. Aldatu behar dena euskaraz egiten den lan horren balioa eta erakusgarritasunaren pisua da; gehiago eman behar zaio. Aldatu behar dira unibertsitateetako balorzioak, irizpideak...

Dibulgazioari ematen zaion garrantzia ez dela handia ere esan izan dute ikertzaile askok. Ikerketan aritzen diren pertsonentzat dibulgazioak ez du pisurik ia euren curriculumean, ez da puntuak ematen dituen alorra. Ikertzaileek dibulgazioa borondatez egiten dute, beharra ikusten dutelako, horretarako prest daudelako, gizarteari emandakoa itzuli nahi diotelako... Dibulgazioari ez zaio pisurik ematen, baina dibulgazioa oso garrantzitsua da. Askotan uste dugu eskolan gabiltzan sa-soian jasotzen dugula kultura eta zientziaren ezagutza zati handiena, baina hori ez da egia. Guk gure bizitzaren %5 baino ez dugu pasatzen mundu akademikoan. Gure bizitzaren %5ean ezin dugu jaso ezagutza guztia. Egun badira ikerketak diotenak gehiago dakigula kultura zientifikoz museo edo erakusketetara joanez, aldizkariak edota egunkariak irakurritz, hitzaldiak entzunez... Hortik jasotzen dugu kultura zientifikoko gehiena. Dibulgazioak, beraz, pisu handia du, transmititzen diguna asko delako.

Dibulgateko premiarik ez, baina ikerlarien artean publikatzeko premia handia da. Sumatzen duzu?

Bai, lehia bat dago hor. Curriculum egiteko erreferentzia kopuru bat behar du ikertzaileak, eta, zoritxarrez, aldizkari batzuk betetzen dituzte arau batzuk eta haietan publikatzeak askoz ere puntu gehiago ematen ditu. Arazoa da “izen ona” duten aldizkarietan argitaratzea oso zaila dela, jende guztiak beren lanak haietara bidatzen ditu eta. Hori dela eta, artikulua eta lan asko bidean geratzen dira eta horrek desesperazio puntu bat ere

sortzen du. Orokorrean ez zaigu gustatzen sortu den joko hori, baina, hala ere, euskarazko lanak argitaratzen dituzten aldizkariak horretan ere sartuta daude jada. Indexaziorako arau guztiak betetzen ari dira euren aldizkarietan argitaratzen diren artikulua puntuatzeko. Bide egokia ez dela ikusi arren eta nolabait gure kontra egiten dela jakin arren, jokoan sartzen gara, gainerakoan galtzen ateratzen garelako.

Egindako lana ezagutzera emateko bide bat da zuen datu-basea, zer-nolako erantzuna jasotzen duzue egileen aldetik?

Autoreen aldetik oso jarrera ona jasotzen dugu beti. Zorionekoak gara, zeren badira autore asko lan berriak egiten dituztenean jakinarazi egiten digutenak. Autore gehienak kontziente dira euskal komunitate zientifikoko parte direla. Azken denboran sartu ditugun erreferentzia asko jende gaztearenak dira. Tesia egin eta defendatu ostean bere ikerketa lana ezagutzera ematen ari den jendea da. Euren datuak jaso eta Inguma datu-basean sartu ditugula esaten diegunean, halako esker ona sentitzen dugu haien partetik. Azken batean zerbaiten parte sentitzen dira, egiten ari diren lana etxean ere aintzat hartzen dela sumatzen dute.

Bilaketak egiteko orduan, euskara ez beste hizkuntza batzuk erabiltzeko joera dago. Ez da hala?

Bai, baina Ingumak egiaztatzen du komunitate bat badagoela eta edozein jakintza arloko gaiak euskaraz landu daitezkeela. Informazio iturriak bilatzean beste hizkuntzetan dauden iturrietara jotzeko joera dugu. Azken batean ez dakigu zer baliabide ditugun eskura, ez dakigu guk ere baditugula liburuak, artikulua... Ez dakigu erdaraz bilatutako gai hori euskaraz ere aurki dezakegula. Ingumak nahi duena euskal produkzioa begien bistara jartzea da; hau ere badago, gu ere gai gara eta adituak baditugu. Horri balio ematen saiatzen gara.



«Dibulgazioari ez zaio pisurik ematen, baina dibulgazioa oso garrantzitsua da. Askotan uste dugu eskolan gabiltzan sasoian jasotzen dugula kultura eta zientziaren ezagutza zati handiena, baina hori ez da egia»



Bilatzaile ugari daude, zerk ematen dio balio berezia Ingumari?

Inguman klik bakar batekin edozein liburutegitan dauden erreferentzia, artikulua eta liburuak topa daitezke. Era berean, 38.000 erreferentziatik ia erdia zuzenean kontsulta ditzake erabiltzaileak, inora mugitu gabe. Gainera, aditu batekin harremanetan jartzeko beharra izanez gero, kontaktuak jar zaitezke formulario bat beteta soilik. Bere balio nagusiak erraztasuna eta harremanetan jartzeko aukera dira. Gaur egun Inguma datu-basean gehien erabiltzen den zerbitzua harremanetan jartzekoa da. Egile guztien kontaktua ez dugu, %70arena edo dugu oraingoz, baino baten batek eskatuz gero, saiatzen gara hura lortzen.

Gure beharra zalantzan jarri izan dute, baina, azken batean, idatzizkoa eta ahozkoa jasotzen duen egitasmoa gara, bilgunea. Proiektu honek duen berezitasuna da guztia biltzen duela komunitate baten trinkotasuna adierazteko eta esateko zientzia eta kultura euskaraz lantzen ari den komunitatea bat badagoela. Bilguneak beharrezkoak dira

eta horren balioa aldarrikatu behar da.

Zeintzuk dira aurrera begira finkatuta dituzuen erronkak?

Guk informazio asko dugu datu-basean. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da hor gaudela adieraztea. Sarean ikusgarritasuna lortzeko eta ezagutarazteko bideak badaude, eta baliatu egin behar ditugu. Gure erronka da datu-basea hornitzen jarraitzea eta informazio iturri ona behar duten erabiltzaileei zerbitzuak eskaintzen jarraitzea. Baina gure erronka da, era berean, dugun informazioa formatu desberdinetan eskaintzea. Azken batean, gurea proiektu bibliografiko bat da, baina helburua da gai baten inguruan dugun informazioa transmedia formatuekin eskaintzea, gure bilaketa sistema hobetzea, Google bilatzailean agertzea...

Dena Interneten dago, baina informazio asko ezkutuan gelditzen da.

Horregatik, hain zuzen ere, gure helburua da inork gai baten inguruan informazioa bilatzen duenean, eta, hitz gakoak bilatzailean sartzean, Inguma informazio itu-

rri gisa azaltzea. Formulak badaude eta azken urteetan horretan ari gara lanean, ezkututik ateratzeko lan horietan. Kontua da guk bezala, besteek ere gauza bera egiten dutela. Oro har, informazioa bilatzeko oso pazientzia gutxi dugu eta joera hori areagotu egiten da Interneten.

Internetek bilaketa prozesua eraldatu duela diozu, baina suposatzen dut azken hamabost urteetan teknologiari esker asko erraztu zaizuela lana, tekniki koki behintzat.

Ba, noski, egundo egiten dugun lanak ez du lehengoarekin zerikusirik. Kuriosoa da, jendeak uste du erreferentziak datu-base batean sartzea oso lan erraza dela, baina datuak egiaztatu egin behar dira. Ahozko erreferentzien ziurtasuna erakundeek ematen digute; idatzizkoa ikuskatu egin behar dugu. Guk ez dugu testuen kalitatea neurtzen, baina Inguman sartzen den produkzioak irizpide batzuk bete behar ditu. Horrek guztiak denbora ematen du. Egia da lehen datuak sartzen denbora asko ematen genuela, eta, gaur egun, berriz, teknologiari esker erauzketak egiten ditugula.



IKUSMIRA



NATURAK SINATZEN DITU ARTELANIK BIKAINENAK

Elurrak bazterrak zuritu ditu, argia argitu du, berritu egin ditu zelaiak, kaleak, espaloiak eta etxe atariak. Egunerokotasuna aldatu du, hankaz gora jarri, desordenatu. Eta hala ere, hain agertzen da zuri, eder, argitsu, ordenatu argazkietan. Beti hor egon izan balitz bezala.

Itsasoari begira denbora ez da existitzen. Eta berdin gertatzen da elurri begira ere. Horregatik bakarrik, denboraren tiraniatik askatzen gaituelako tarte batez, merezi izan du elurrak.

Eta bai, oraindik ere naturak sinatzen ditu artelanik bikainenak.

amagoia.mujika@gaur8.info



NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA

ERREZETA Bruselazen «pickles»-ak

OSAGIAK

Bruselazak
Pipermina
Piperrauts beltza
Jengibre hautsa
Baratxuria
Gatza
Ura
Beirazko pote hermetiko bat

PRESTAKETA

Guk bruselazen *pickles*-ak prestatuko baditugu ere, kontuan izan errezeta hau edozein barazkirekin balia daitekeela prozedura berdina jarraituz. Era berean, edozein espezia eta gozogarri erabil daiteke.

1. Bruselazak zuritu eta ondo garbitu.
2. Behin ondo garbituta, azak, baratxuriak eta pipermina potean sartu.
3. Beste alde batetik, pitxer batean, ura, jengibre hautsa eta piperrauts beltza nahastu; ur litro bakoitzeko 20 gramo gatz gehitu. Ondo nahastu.
4. Jarraian, prestatutako ur ondu hori potean irauli eta ondo itxi.
5. Potea leku fresko eta ilun batean gorde hartzidura prozesua hasteko. 7 edo 8 egun beharko ditu gutxienez hartzitzeko. Denborak aurrera egin ahala barazkien zaporea aldatuz doa. Behin irekita, potea hozkailuan gorde.

**Kontuan izan gomendagarria dela bruselazak ez kozinatzea bakterio onberak desager ez daitezen. Nola jan? Zuzenean, entsaladan, ozpin saltsarekin... Edonola izanda ere, gozo-gozoak izango dira pickles-ak!*



Ortutik Ahora elkartea

Hartzituak, zentzudun kontserbak

Ortutik Ahora elikadura-ekin lotutako gaiak ikuspegi agroekologiko batetik lantzeko sortu zen irabazi asmorik gabeko elkartea da. Elikadura, osasuna eta kontsumoaren inguruan kontzientziazioa bultzatzea eta bestelako kultura agroekologiko bat sortzea helburu duten nekazari, sukaldari, nutrizionista eta hezitzaileak biltzen ditu. Oraingo honetan, elikagai begetalak prestatzeko eta kontserbatzeko teknika zahar batekin datoz: hartzituak.

Negurekin bat, azak, azenarioak eta porruak heltzen dira gure etxeetara, eta, askotan, zaila egiten zaigu hainbeste produkturi irteera ematea gure menua aspergarri bilakatu gabe. Konponbide erreza eskaini nahi dizuegu oraingo honetan:

barazki hartzituak, bruselazen *pickles*-ak, hain zuzen ere.

Gaian sakondu aurretik, hartzituak zer diren azalduko dugu lehenik. Hartzidura edo fermentazioa hartzituak sortzeko prozesua da. Oinarrian, antzinako kontserbazio teknikarik erabilienetakoa da elikagai-gintzan. Dena den, hartzidurak ez gaitu soberako produktuak kontserbatzen soilik laguntzen: hartzitutako elikagaiek zapore, testura eta bestelako hainbat bide berri zabaltzen dituzte gure sukaldeetan.

Hartzitutako elikagaiek balio erantsia ematen diete gure sasoiko barazkiei. Are gehiago, hartzidurak abantaila asko dauka. Osasunari dagokionez, adibidez, hartzidura prozesuan parte hartzen duten bakterioek, legamiek eta hondoek hainbat substantzia onuragarri sortzen dituzte prozesuan zehar. Aipatzekoak dira har-

tzitutako elikagaiek bai heste-floran bai digestio prozesuan dituzten ondorio onuragarriak. Halaber, gero eta aditu gehiagok digestio sistemak berebiziko garrantzia duela defendatzen dute. Hesteetan bizi diren bakterio koloniak beste organo bat bailiran hartu beharko genituzke, gaitz asko ekidin baitaitezke gure hestetako mikrobiota edo heste-flora ondo zainduz gero.

Prozesuari berari dagokionez, hartziduraren jarraipena egitea nahiko erraza da. Landareak mikroorganismo onberen etxe dira, eta, aire faltan daudenean (egoera anaerobikoan), erraztasunez ugaltzen dira, bide batez gure osasunerako kaltegarriak izan litezkeen mikroorganismoen ugalketa saihestuz. Mikrobio onuragarri horiek erraz metabolizatzen diren azukreak kontsumitzen dituzte landareetatik, aldi bere-

an substantzia antimikrobianoak sortuz: karbono dioxidoa, alkohola, azido azetikoak, azido laktikoa eta beste azido batzuk.

Mundu osoko sukaldeetan tankera honetako kontserbazio teknikak erabiltzen direla kontu jakina da. Erraz aurki ditzakegu hainbat adibide: Alemanian *chucrut*-a da plater tradizional ezagunena, Korean *kimchi*-a eta Erresuma Batuan *pickles*-ak.

Gaurkoan, *pickles*-ak landuko ditugu, bruselazekin egindakoak, hain zuzen ere. Lehen esan dugun moduan, *pickles*-ak hartzitutako barazkiak dira eta efektu garbitzailea dute gizakion organismoan. Izan ere, gure gorputzera entzimak, azido laktikoa eta hartzigarri onuragarriak eramaten dituzte *pickles*-ek.

Eskorbuto hauteskundeetara

Koldo Sagasti

Dagoeneko sumatzen da hauteskunde giroa. Bai, badakit amaigabeko kanpaina batean murgilduta bizi garela, baina, oro har, orain-txe jarri da abian hauteskontziak konkistatzeko lasterketa. Betikoek, azken hamarkadotan itsasontzia gobernatu eta hondora eramán dutenek, eskarmentua baliatzen dute lehia horretan berme argudiotzat. Eurak dira adituak, merkatuen lema gidatzen dakitenak, Deustuko Unibertsitateko ekonomia masterra dutenak, Nazioarteko Moneta Funttsaren eta Europako Banku Zentralaren oniritzia dutenak... Haien orde-z, kaosa baino ez dago, zaborra nonahi, azak baino ez ditugu jango. Begira diezaio-gun bestela Greziari eta herriak arduraga-

bekeriaz hautatutako ezkerren eskutik datorrien hondamendiari. Politikari profesionalen esperientzia fedé itsua eskatzen diote hautesleriari, baina esperientzia horrek hutsaren hurrengoa balio izan die itsasontzia porrotera joan zedin ekiditeko. Gaur egun pairatzen dugun krisialdia ez zuten aurreikusi eskarmentu handiko ekonomialari profesional horiek, edota Lehman Brotherseko gizon gorbatahunek; aitzitik, punkak izan ziren hiru hamarkada lehenago egungo panorama iragarri zutenak. Punkak, bai, gandor tenteak, *li-trona* beroak eta guzti, eurak izan ziren etorkizuna irudikatzen asmatu zuten bakarrak, beste inor ez zen haiek bezain gai

izan iragartzeko kapitalismoa eta estatua bideraezinak zirela, bide horretatik hondamendira gindoazela. 80ko hamarkada-ko punken amesgaiztoa da oraina. Har ditzagun Ikerkuntza Soziologikorako Institutuaren azken inkestaren emaitzak: langabezia, pobrezia, politikari ustelak, bankari lapurrak, ezkortasuna, sumina, amorrua... Gehitu horiei guztiei gitarra kar-rankari batzuk eta bateria aritmiko bat eta horra hor Eskorbuto, La Polla edo Kortaturen kanta bat. Zertarako berretsi konfiantza behin eta berriz huts egin digutenei? Alternatiba bakarra kaosa bada, kaosa ezin da hau baino okerragoa izan. Ez dago beste irtenbiderik... Eskorbuto hauteskun-deetara! •

Mozorroak

Amaia Agirre

Mozorroa lozorroan dugun “ni”-a ezkutatzeko dela pentsa genezake, baina ez ote da ezkutatu nahi izaten dugun hura agerian uzten duen maskara? Inauterietan dena omen zilegi, dena zilar begi, dena zehar egi. Baina ez gara inauterietan soilik mo-zorrotzen. Ez gara inauterietan soilik ez-kutatzen. Urte osoan geratzen da agerian garena eta izan nahi duguna. Izan nahi ge-nukeenaren parodia etenik gabekoa da egutegiaren joan-etorrian. Eta beti erlijioa dago atzean. Ohitura sa-kratu bihurtu dira inauteriak, baina kon-fesatzeko ordua iritsi da. Izan jaunartzeak, izan ezkontzak, izan herriko festak, izan Halloween... urte osoan gabiltza inauterie-tan. Gu mozorroen azpian, eta gainean ka-tolizismoaren zomorroa.

Jainkoak gurtzearen erritualari amen egin genion aspaldi, eta ordu batzuetako jainko-jainkosak bihurtzea bihurtu dugu bizipoz ikur. Lehen hildakoen gorantzan ere egiten ziren gisa honetako ospakizunak, baina orain bizirik gaudela sentitzeko behar ditugu horrelako jaiak. Berrogeialdiaren edo garizumaren aurre-ko ospakizun dira inauteriak. Baraualdiaren aurretik Baco ardoaren jainkoa gurtzeko an-tsia eta beharra. Biharrak egarri harrapatu-ko gaituen beldur gara agidanean. Eta zer esan jaunartze eta ezkontzei bu-ruz? Irudimenak hainbesteko arrakastarik ez duen inauteri txikiak ez al dira? Irudi-men baino irudiari men. Gurutzea lepoan eta lazoa soinekoan ibili zirkuan. Lehenen-go ostia bedeinkatua jaso eta segi aurrera. Zer-nola bataiatu ez dakidan bataio eta ez-

kontza arteko zubilana. Zuri-jana. Zauriba-na guraso eta aitona-amonon poltsikoetan. Eta segi aurrera. Eta ez bedi oparirik falta. Ai, eta ezkontzak! Eske ontzak hauek ere. Aureskua, abesbatza eta muxuak. Baina aurretik andregaiaren soinekoa bezain zu-ria den sobrea. Sobra handirik ez duenak ere gonbidatu izateko ohorea dirutan esker-tzeko obligazioa. Bestetik, ezkonberriak bai-no erakargarriago joateko ohitura izaten dute batzuek, eta inauterietan baino mozo-rrotuago doazen irudipena beste batzuek. Besterik ez. Izan eta egin nahi duzuenaren lagungarri baino ez dadila izan mozo-rrua. Aurpegia estaltzeak ez diezazuela ipurdia bistan utz. Alkohola eta disfraz ez daitezela bestela lortuko ez genukeen gehiegizko ausardiaren errudun izan. Jai koloretsuak opa dizkizuet. •



Iker Ibarluzea Ibarako zubi batean eserita, ibaiaren ur jarioa atzean duela. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

infraganti IKER IBARLUZEA

Umetan eguraldiaren mapak zituen gustuko eta eguraldi iragarleen hitzak entzuten hazi zen. Orain bera da isobara eta ikur artean murgildurik dabilena, mapak interpretatu eta eguraldiak nondik joko duen aurreikusi asmoz. Hasi berri duen ibilbidean fin aritzen da, hitz jario errazarekin, Tolosaldean jada ezaguna den «eguraldi gizona».

Neguan oskarbi, zerua urdin-urdin dela ateratzen diren egun horietako batean, eguzkipeko goxotasunean, eguraldiaz eta honek gordetzen dituen misterio eta zirrikituez dihardu Iker Ibarluzea (Ibarra, 1990) meteorologo gazteak. Igo-gailuko elkarrizketa hutsal baterako baino gehiagorako ematen du eguraldiak, denok begiratzen baitiogu arretaz, gure planak zehazteko komeni zaigunean ba-

tez ere. Eta bada horretan afizio iturria aurkitzen duenik. Zaletasun hori ogibide bihurtu nahian dabil Ibarluzea, Geografia ikasketak egin ostean Granadako Unibertsitatean Meteorologiari buruzko masterra eginez. Eguraldi iragarpenen arloan lehenengo urratsak emanak ditu dagoeneko, Tolosaldeko Atarian eta Zumarraga-Urretxuko irrati librean ematen baitu eguraldiaren berri. Tolosaldeko «eguraldi gizonak» txikia zenetik izan du argi zein zen bere bokazioa. Lanbi-

dea zein izango zuen beti argi izan duten horietakoa da Ibarluzea, nahiz eta berea ez zen hautu ohikoena haurrengan, suhiltzaile izan nahi duen txikiarena bezalakoa adibidez. Urteak pasata ere, helburuari eutsi dio. Ez zen hego haizeak jotzen duenean hartutako erabaki horietakoa. Hala, 6 urteko mutil koxkor bat zela adi-adi begiratzen zien jada telebistan agertzen diren eguraldi mapei. Ikur eta kolorek atentzioa deitzen zioten eta jakin-min hori handituz joan zi-

tzaion urteak pasa ahala. «Egunero-egunero eguraldia ikusten nuen, eta, 13 edo 14 urterekin, nire kasa irakurtzen hasi nintzen. Garbi neukan zer ikasi nahi nuen eta zer izan nahi nuen», azaldu du. Gainera, naturarekin lotura berezia izan du betidanik. Mendizalea eta naturaren inguruko gauzen zalea izanik, eskolan trebea zen halako ikasgaietan. Zaletasunak eta trebeziak eraman dute ibarratarra eguraldiaren inguruko iragarpenak egitera, datuak ongi interpretatu eta asmatu nahiak sortzen duen ardura eta kitzika nahasturarekin. Izan ere, eguraldiaren iragarpenari so dagoenak zehatz-mehatz jakin nahi izaten du hurrengo egunetan etorriko dena eta ez da aldarte onez hartzen huts egitea, onetik txarrerakoa denean batez ere. Iragarpenak, ordea, ez daude akatsetik salbu. Zientziaren misterioak, edo gutiziak, nahi bada. Horregatik, aurreikuspenak ahalik eta zuzenenak izan daitezten iturri ezberdinak kontsultatzen ditu Ibarluzeak. «Iragarpenak Internet erabiliz egiten ditut. Nire baliabideak eta meteorologo ofizial batenak ez dira berdinak, azken finean meteorologo ofizial batek askoz ere iturri gehiago baititu. Nik egiten dudana da Interneten lau orrialde ezberdinetatik mapa edo modelo numeriko deitzen direnak hartu eta horiek konparatuta nire interpretazioa egin». Lainoak, prezipitazioa, tenperatura, presioa... horiek denak dira eguraldiak nondik joko duen asmatzeko kontuan hartu beharreko elementuak. Euskal Herrian, klima aldakor xamarra dugula kontuan hartuta, epe laburreko iragarpenak dira arrakasta aukera gehien aurkeztzen dutenak. «Zaila da jarraian lau egun baino gehiagotan eguraldi bera egitea», dio. **IRAGARLE ONAREN DOHAINAK** Aldakortasun horren eraginez hurrengo egunean zerua gris edo urdin koloreko, lainotsu edo garbi, giroa heze edo lehor izango dugun jakin nahian hurbil-

tzen zaizkio asko. Familia eta lagunak ia egunero izaten ditu galdezka eta dagoeneko herriko bizilagunak ere hasi zaizkio iragarpen eske. «Zuk eguraldia ematen duzu, ezta? Zer egingo du bihar», hala gerturatu omen zitzaion duela gutxi emakume bat Tolosan, besotik heltzen zio-la, hurrengo egunean plana zuela eta eguraldia lagun izango ote zuen jakin nahian. Ilusioa egin zion jasotako esker onak, zalan-tzarik gabe.

Asmatzen duen iragarlearen ospea ote duen galdetuta, xume eta zintzo agertzen da. Inor ez dago huts egitetik libre eta berak ere izaten omen ditu halakoak. Aurreko astean, esaterako, Euskal Herriaren luze-zabalean eroritako elurteen harira, ez zuen erabat asmatu eta izan zen, konfiantzak eragiten duen atrebentziarekin, kexu agertu zitzaionik. Normalean, ordea, fin ibiltzen dela nabarmendu nahi izan du, irriño umilarekin.

Denborak eta esperientziak ematen duten eskarmentuarekin hobetu eta begiko duen Andoni Aizpururen elegantzia eta planta nahiko lituzke, bere estilo propioa mantenduz noski. «Naturala da, kameren aurrean ondo moldatzen da eta gainera ikusten da, nahiz eta ez den meteorologoa, badakiela. Asko transmititzen du. Ez da mugatzen gaur eta biharko iragarpena egitera, saiatzzen da hurrengo egunetako joera ere aurreratzzen. Jendeak estimatzen du hori», aipatzen du.

Pello Zabala ere gustuko du, nahiz eta zehaztasun aldetik ez duen hain borobil ikusten. «Eguraldia esateko modu nahi-ko berezia du, azalpen orokor xamarrek emanez. Hala ere, asmatzen du normalean».

Aurreko biek ez bezala, Ibarluzeak kameran atzealdean ikusten du bere burua. Meteorologia agentzia batean aritu nahiko luke, mapa artean interpretazioak egiten. Iragarpenak publikoki egitekotan, irrati uhinen bitartez botako lituzkeela dio, telebista kameren eta objektiboaren begirada zorrotzetik urrun. Izan ere, meteorologiaz jakiteaz harago, iragarpenak egiteko «bes-



Ibarluzea Tolosaldeko «eguraldi gizona», Ibarrran. Jon URBE | ARGAZKI PRESS

telako dohain bat» ere behar dela uste du. Komunikatzeko abilezia, alegia.

EGURALDIA ETA UMOREA

Bazkalosteko epeltasunean, giro gozoan doa eztabaida, eta, beharbada eguzkiak sortutako erosotasun horrek bultzatuta, eguraldiak gure aldar-tean duen eraginaz galdetu diogu Ibarluzeari. Jendeak garrantzi berezia ematen dio eguraldiari, eta ez bakarrik bere egunerokotasuna antolatze-ko izan dezakeen eraginagatik, baita gure umorean sortzen dituen gorabeherengatik ere.

Eguzkiak berezko irribarrea marrazten die askori, euri zaparradak eta haize bortitzak muturra luzatzen dien moduan. Aldarte jatorragoa izan ohi dugu eguraldia lagun dugunean. Iritzi hori berretsi du Ibarluzeak, nahiz eta ez daukan erabateko azalpen

zientifikorik horretarako. «Niretzako eguraldiak eragina dauka jendearen eguneroko izaeran. Denbora luzean zehar eguraldi txarra egiten badu, jendeari aurpegi luzeagoa ikusten zaio. Sumatzen da ez dagoela hain umore onez, erreta bezala. Eguraldi ona egiten duenean beste alaitasun bat sumatzen da».

Paradoxatik ere badu zerbait baieztapen horrek, Euskal Herrian udan ere ez baitago erabat ziurtatuta eguraldi ona. Udarik ilunenean esaerari eustea besterik ez da gelditzen orduan, eguraldi txarrari aurpegi ona jartzera deitzen gaituen horri alegia.

Ildo berean, hego haizearen eta aldar-tearen artean lotura zuzena dagoela dioen ustea bide onetik doala uste du. Askotan lotzen da hego haizeak astindutako egun batzuen segida umore aldaketekin edo buruko minekin eta Ibar-

«Egunero-egunero eguraldia ikusten nuen eta 13 edo 14 urterekin nire kasa irakurtzen hasi nintzen. Garbi neukan zer ikasi nahi nuen eta zer izan nahi nuen», nabarmendu du Ibarluzeak

«Niretzako eguraldiak eragina dauka jendearen eguneroko izaeran. Denbora luzean zehar eguraldi txarra egiten badu, jendeari aurpegi luzeagoa ikusten zaio», aipatu du

orain, hartara moztarro festa salbu izango delakoan.

Huts egitea posible dela ohartarazita bota du iragarpena Ibarluzeak, baina gaurtik aurrekoak ez omen dauka oso itxura onik. «Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, nahiko zakar. Fronte bat dator, lanerako gogoarekin gainera, eta euri dezente utziko du larunbat iluntzean. Igandean ere euritan hasiko da eguna, eta eguerdi aldean zertxobait atertuko badu ere, zaparradek jarraituko dute. Zerbait hoztuko du, nahiz eta ez diren izango lehengo asteko hotz horiek. Ipar haizea bizi-bizi ibiliko da eta elurra 800 metro ingurura itzuliko da».

Halako iragarpen zehatza entzunda, neguari gelditzen zaionari buruz eta udaberria nola etor daitekeen aurreratzeko eskaerari ezin eutsita, nahiago du zuhur mantendu. «Epe luzeira iragarpenak egitea arriskutsu xamarra izaten da, asmatzeko oso aukera gutxi izaten da. Pello Zabalak, adibidez, tenporei heltzen die, baina batez ere usteetan oinarrituta daude. Garai bateko baserriarren tradizioa da eta egiatik zerbait izango du horri kasu egiten bazioten, baina ez dauka oinarri zientifikorik eta fidagarritasun gutxi dauka», azaltzen du.

Dena den, ia-ia nahigabea, etor daitekeenaren inguruko irakurketa egiten bukatu du. «Neguaren aurreneko zatia epela izan dugu, prezipitazio pixka batekin. Bigarren zatia, hotzagoa eta lehorragoa. Azkena, aldiz, euritsuagoa eta hotzagoa. Hortik jota udaberriak izan dezakeena da hasiera nahiko euritsua eta hotza, gero pixkanaka udara gerturatzen den heinean pixka bat lehorte eta berotzeko. Baina ikusi beharko da».

Apustua handira egin du azkenean, eta asmatuz gero, seinale ona beretzat, baita eguzkia maite dutenentzat ere.

Iraia Oiarzabal Mujika

luzeak badu horrentzako azalpena. «Eguraldia oso egonkorra denean jende askori burua kargatzen zaio. Presioaren eragina da, presioa altuagoa denean jendeari burua ere nekatu egiten baitzaio», dio.

Haizea, euria, beroa zein hotza tarteko, esan daiteke beraz, giza-kiok badugula halako lotura natural eta sentsoial bat eguraldiarekin. Ezinbestean eragiten diguna. Horrenbestez, inauterietan eguraldia nola portatuko den da askok egunotan gainean duen kezka.

Zalantzak uxatzeko, Ibarrrako meteorologoari galdetzea onena. Aldez aurretik eman digu abisua: askok ez dute gustuko izango bere iragarpena, uretatik pasatakoak izango baitira aurtengo arastuteak. Aurreikuspen okerrak gorroto dituztenetako batzuk akatsaren esperoan izango dira

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Trukatuak

1994. urteko egun berean jaio ziren eta ospitale berdinean, Cannesko Jourdan klinikari. Eri-zain batek, ordea, akatsa izan zuen eta familiak trukatu zituen. Orain, epaitegi frantses batek klinikaren ardura nabarmendu du eta neskato bakoitzari 800.000 euroko kalte-ordaina eman beharko dio. Eta beren familiei ere ordaindu beharko die egindako kaltea, guztira 1.900.000 euro. Neskatoak txikiak zirela konturatu ziren familiak ez zirela beren alaba biologikoak, fisikoki ezberdintasun handiak izanda DNA frogak egin zituztelako. Hala ere, familia bakoitzak hazi duen alabarekin segituko du.

> Heriotza

Gutxienez 300 etorkin hil dira Siziliako itsasartean, denborale batek jota. Bizirautea lortu duten pertsonak Palermoko Poliziari azaldu diotenez, hiru egun zera-matzaten uretan nora ezean, eta jada ontzietan ura sartzen hasita zegoenean erreskatatu dituzte. UNHCR Iheslarietarako Nazio Batuen Goi Mandatariaren bulegoak zehaztu duenez, «guztira, lau ontzi zeuden, batean, 29 pertsona hilda zeuden hipotermiak jota, eta 76 bizirik. Beste hiru ontzietako bakoitzean 100 bat pertsona zihoazen, eta bederatzi baino ez dira salbatu». Lampedusara 29 gorpu iritsi dira oraingoz, denak hotzez hildako 18 eta 25 urte bitarteko pertsonak.

> Kalamua

Cristina Sanchezek, Madrilgo Unibersitate Konplutentseko biologoak frogatutzat eman du edozein tumore motak erantzuten duela kalamuaren aurrean. *Cannabinoide* motako konposatu organikoetan aditua da Sanchez eta hamar urte baino gehiago darama ikerketa lerro horretan lanean. Laborategiko saioetan ikusi ahal izan duenez, THC substantziak –kalamuaren substantzia psikotropikoak– minbizi zelulen suizidio programatua agintzen du. Suizidio garbia da, gainera, sano dauden zelulei eragiten ez diena. Orain arteko saio guztiak arratoiekin egin dituzte, baina emaitzak oso onak dira.

> Hartz kumea

Prioron, Leongo mendialdean dagoen herrixkan, hartz kume bat aurkitu zuten herrian bertan. Zehazki, Prioroko Oscar Montero bizilagunak hartu zuen ezustekoa pasa den larunbatean, elurtea zela-eta galdutako hartz kumea bere etxeko atarian topatuta. Hartz kumearen irudia bolo-bolo hedatu da sare sozialetan. Leon hiriburutik 60 kilometrora dago Prioro, 400 bat biztanle ditu eta 1.120 metroko altueran dago. Monterok komunikabide espainiarrei adierazi dienez, hartzak eguna poztu zion; «elurra dela eta, egunak eman ditugu inkomunikaturik, eta bi egun eta erdi, argirik gabe», nabarmendu du.



KUTXATEKA.COM

UMOREA ASPALDI ASMATU ZUTEN

Goikoa, Donostian ateratako argazkia da, 1928. urtean. Behekoa, Tolosan jasoa, 1927. urtean. Biak, inauterietan. Beti zerbait asmatzen ari dela uste duen belaunaldiarentzat ariketa ederra izan daiteke atzera begira jarri eta argazki hauei erreparatzea. Umorea eta irudimena garai guztietakoak dira. Aspaldi asmatu zituzten. **Pascual MARIN. MARIN FUNTSA / Ricardo MARTIN. PHOTO CARTE.**

Olatz Perez de Viñaspre Garralda
EHUko Informatika Fakultateko ikerlaria



Teklatu adimentsuak?

Azken urteetan telefono adimentsuen erabilera ikaragarri pilo igo da gure artean eta honek gure arteko harremanetan eragina izan du.

Telefono mugikorren merkaturatzea jada erreboluzio bat izan zen alorrean, eta SMSek komunikatzeko bide berri bat ireki ziguten.

Mezu labur hauek gazteen harremanetan izan zuten arrakasta bereziki, eta SMSek karaktere kopuru maximo finkoa izanik, karaktere gutxi batzuekin mezu ahalik eta zabalena idazten ziren, hizkuntzen ortografia eta arauak kasu gehienetan erabat alboratuz. Hizkuntzena diot (pluralean), izan ere, hizkuntzen arteko nahasketak laburtzapean oso bitxiak sortu zituen gure gizarte elebidunean. Adibidez, “2” zenbakiaren gaztelaniazko eta euskarazko adierekin ordezkatzuz euskarazko hitzen laburdurak idatz litezke: “a2”, “ados” laburtzeko; eta “2ar”, “bihar” hitza sortzeko.

Dena dela, hitzen adierazpenean ez ezik, idazteko moduan ere teknika berria ekarri zuten SMSek: telefonoaren zenbakizko teklatu murriztarekin mezu osoak idatzi beharra (hamabi botoi denera). Idazketa teknika honek hatz lodia bakarrik erabiltzeko aukera ematen du, eta trebeenek begiratu gabe idazteko abilezia ere garatu zuten, abiadura handiz idaztea lortuz.

Baina 90eko hamarkadan sortu eta zabalduak diren *smartphone* edo telefono adimentsuen ugalketarekin topo egin zuen. Gehien zabaldu diren telefono adimentsuak ukimen pantaila dutenak izan dira (Android eta iPhone gailuak) eta hauetan ez da teklatu fisikorik egoten. Gailu hauek ukimen pantailan QWERTY motako teklatua (gaur egun ordenagailurako gehien zabalduak diren teklatu mota) pantailaratu egiten dute lehenetsirik, eta honek ordenagailuko teklatuaren funtzionamendu antzeko dauka. Baina jakina, teklatu hauek hain txikiak izanik, hatz bakarrarekin edota birekin tekla guztiak jo beharrean aurkitzen gara, idazteko denbora areagotuz, eta baita akatsak egiteko aukerak ere.

Telefono adimentsu hauek, adimentsuak diren heinean, idazketa akats

hauek zuzentzeko aukera eskaintzen dute, eta aukera hau lehenetsirik aktibatuta etortzen da. Baina, nori ez zaio gertatu “naiz” idaztera joan, eta telefonoak “maíz” idatzi diola? Edota “baina” beharrean, “vaina”? Horrelako adibide barregarri bezain deseroso ugari etorriko zaizkizue burura, eta “telefono adimentsuak” baino “telefono zirikatzaileak” izendatu beharko genituzkeela uste duenik ere badago gure artean.

Aurreko adibideetan, hizkuntza inkoherentzia baten aurrean gaudela agerikoa da, erabiltzaileak euskaraz idatzi, eta telefonoak gaztelaniako hiztegi baten kontra egiten baitu zuzenketa. Horrela, beharrezkoa ez den zuzenketa bat eginez, okerreko hitza itzultzen du. Hortaz, idazketarako hizkuntza zuzen aukeratuz gero, telefonoak ere zuzenketak zuzen egingo ditu. Baina, telefono guztiek eskaintzen al dute euskarazko zuzentzailerik? Bada, ez. Zuen telefonoak ez badu euskara sarriera hizkuntza gisa gehitzeko aukera ematen, gaur egunean hamaika teklatu-aplikazio daude sarean eskuragarri euskararentzat ere zerbitzua eskaintzen dutena (batzuk dohainik ere).

Badira teklatu horien artean biziki interesgarriak direnak, idazketa denborari begira batik bat: arrasto-teklatuak. Teklatu hauen berezitasun nagusia idazketa modua da, hitz bat letra bakoitza ukituz idatzi beharrean, hatza letra batetik bestera arrastaka eramanez idazten baita, hitz bakoitza idazteko hatza altxatu gabe.

Gaur egun merkaturatzen hainbat arrasto-teklatu aurki daitezke Android gailuentzat zein iPhonentzat, eta zabalduenak Swype, Fleksy edo Swiftkey dira. Teklatu hauek ezaugarri gehienak antzekoak badituzte ere, Swype eta Swiftkey-k bakarrik eskaintzen dute euskararentzat zerbitzua, eta, Swype teklatuaren kasuan, aldibereko bi hizkuntzen konbinaketa ere onartzen du, testu eleanitzen idazketa bermatuz.

Ikus dezakezuenez, telefono adimentsu deritzen gailuak, benetan adimentsuak diren aukerak ematen dizkigute gure eguneroko idazketan laguntzeko, norberaren hizkuntz eskakizunei egokituak gainera.

Jakin-minari hegan egiten utzi, eta teknologiaren bitxikeria honi aukera bat eman! Ez zarete damutuko! •



Badira merkaturatzen euskararentzat ere zerbitzua eskaintzen duten arrasto-teklatuak. GAUR8

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

EUSKAHALDUN!



19. ^{aek} korrika **ZU ERE**
LAGUNTZAILE

12 euroren truke,
garrantzitsuenai lortuko duzu:
AEKren euskaltegiei laguntzea

Horrez gain, pina eta txartelaren
abantailak eskuratuko dituzu.

www.aek.eus · www.korrika.eus

